



ARGIA

EHGAM

Sexu askapenaren borroka berpiztera dator

24-28. orriak

#2.752 | 2021/10/31 | 3,90 €



**1961eko aljeriarren sarraskia
Parisen: estatu-krimena
aitortzeko ordua**

12 | HISTORIA



**“Euneiz ez da
unibertsitatea”**

14 | IÑAKI
GOIRIZELAIA



LARRUN #267
Izokina, arrain
eta ondare

LARRUN #200



2022 Ilargia eta landareak

Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga

Baratzea
Fruitu baratzea
Lore baratzea
Basoa



14€

+4€
bidalketa
gastuak

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
DOM

Iritziak

- 19 | ENDIKA ALABORT
- 20 | JUNE FERNANDEZ
- 21 | MIKEL IRIZAR
- 21 | ITZIAR BARDAJI
- 22 | IRATI TOBAR

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | BERANDUEGI



HODEI TORRES

52 | CONCHA CASTELLS

Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarteko presidentea da EAEn eta Unai Break elkarrizketatu du ekainetik indarrean dagoen Espainiako Eutonasia Legeaz. "Gaizki hiltzen gara, oraindik ere" adierazi du, eta gaixoari dagozkion erabakiak medikuek eta familiak hartzen dituztela salatu du. Eta legea ez dela gizartean ezagutarazi, beraz, jendeak ez duela bere eskubideen berri.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

1961eko urriak 17: Frantziaren poliziak aljeriarrak hil eta Sena ibaira jaurtiki zituen egun beltza

Jenofa Berhokoirgoin

14 | JENDEAK | IÑAKI GOIRIZELAIA

"Diru publikoa Euneiz finantzatzeko erabiltzea onartezina da"

Miel A. Elustondo

24 | GIZARTEA | EHGAM

Iraultza sexuala berrarmatzen

Mikel Garcia

29 | HISTORIA | EH NAZIEN BABESLEKU

Bormann kriminalaren misterioa

Jon Arrizabalaga

32 | EUSKARA

Etxetik euskara dakarten haurrak ikasgela berean ala sakabanatuta?

Miel A. Elustondo

36 | EKONOMIA

Funts putreek etxerik gabe utziko dituzte Benta Berri auzoko bizilagunak

Iñaut Gonzalez de Matauko

44 | KULTURA | GUILLEN MARTÍNEZ

"Gaur egunean existitzen ez den lanbidea da kazetaritza"

Aritz Galarraga

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekuenerri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



IN PUNTO
MARTIN VILČEK



LIBERTATEA
LA EPAITU

970 orrialde

Rodolfo Martín Villa auzipetu egin du Argentinako justiziak, gizateriaren kontrako krimenak egiteagatik. Biktimen elkarteek nabarmendu dute María Servini epailearen 970 orrialdeko autoa oso zehatza dela preskribatzen ez duen delitua egozteko. Bide luzea geratzen da Espainiako ministro ohia akusatuen eserlekuan ikusteko, asko baitago jokoan, frankismoaren aparatu errepresiboak ondoren ere jarraitu zuela erakustea, besteak beste. Baina pauso garrantzitsua da, eta San Ferminak 78 Gogoan ekimenak topa eginez ospatu nahi izan du Iruñean, German Rodríguezen oroitarriaren ondoan.

“Klima aldaketaren aitzakian negozioa egin nahi dute”

LEIRE ARTOLA ARIN

Arabako mendietan eta landa eremuetan hainbat industria azpiegitura handi eraikitzeko proiektuak aurreikusita daude. Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren onespenerekin, aurrera doaz zentral eolikoak, zentral fotovoltaikoak, negutegi erraldoiak eta AHTren lineak eraikitzeko planak. Proiektu horiek ingurumenean duten eragin "atzerazina" salatzen eta, beraz, geldiaraztea eskatzeko, Araba Bizirik taldean elkar-tu dira herritar ugari. Urriaren 23an manifestazioa egin dute Gasteizen. Iñigo Leza gasteiztarra AHTrik ez Araba eta Araba Bizirik plataformetako kidea da eta makroproiektuen kalteez ohartarazi du.

Besteak beste eskatzen duzue energia berriztagarrien proiektu batzuk bertan behera uztea. Baina Jaurlaritzak dio gero eta beharrezkoagoa dela energia trantsizioa egitea, egungo energia-krisiari eta klima larrialdiari aurre egiteko.

Lehenik eta behin, ikusi behar da zertarako nahi dugun energia hori. ARGIA kaleratu berri duzue bitcoinaren inguruko erreportaje bat, azaltzen duena nola gastatzen duen txanpon digital horrek herrialde oso batzuk baino elektrizitate gehiago. Eredu horretan, bete ditzakezu mendi guztiak zentral eolikoekin edo fotovoltaikoekin, baina beti beharko duzu energia gehiago. Beraz, lehenbizi sistema bera zalantzan jarri behar da eta, gero, hortik abiatuta pentsatu dezakegu nola lortzen ditugun elektrizitatea eta beste energia mota batzuk. Zer-nolako enpresen bidez lortzen ditugu? Iberdrola gisako multinazionalak daude proiektu horien atzean, eta horrelako multinazionalak berdin zaie gu ondo hornitzea edo elektrizitaterik gabe gelditzea. Etekin ekonomikoari begiratzen diote ba-



karrik. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) dago, erakunde publikoa, eta gai izan beharko luke bere kabuz proiektuak aurrera ateratzeko.

Energia trantsizioaren eta klima aldaketaren aitzakian negozioa egin nahi dute. Adibidez, orain Arabaren hegoaldean jarri dute 55 hektareako zentral fotovoltaiko bat. Bada, alboan poligono industrial handi bat dago, plaka fotovoltaikoak bertan jarri daitezke, edo pabilioien goiko aldeetan. Aldiz, plakak nekazal lurretan jarri dituzte. Nortzuek? Multinazionalak.

Azken egunetan Eusko Jaurlaritzak atzera bota ditu Arkamuko eta Iturrietako zentral eolikoak proiektuak. Ingurumen Sailaren txosten batek azaldu du ingurumenean eragin atzerazina izango luketela. Halere, Labrazako eta Azazetako proiektuak aurrera doaz.

Iruditzen zaigu antzerki pixka bat egiten ari direla. Duela hamahiru urte ere proiektu ugari aurkeztu zituzten Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko mendietarako. Orain, ordea, proiektu guztiak Araban ari dira planteatze, hamaika denara. Bi horiek atzera botatzea ondo iruditzen zaigu, ikusi delako herri presioak era-

gina izan duela; baina eskatzen dugu horrelako zentralak jartzea jada antropizatuta dauden guneean, ez gune naturaletan.

Instituzioek ez digute kasu askorik egiten eta esaten dute lau katu garelako kexatzen garenak. Gainera, medioetan gutaz barre egiten dute. Gero, ikusi dutenean nahiko jende aterala dela manifestazioetara, alde batera utzi dituzte Arkamuko eta Iturrietako zentralak. Iruditzen zaigu uste dutela horrela jendea lasaituko dutela.

Zein alternatiba proposatzen dituzue?

Hasieratik mahaigaineratu ditugu aukurak. AHTri dagokionez, aurkeztua dugu Renfe eta Adifeko sindikatuekin adostutako akordioa. Hitzarmen horrek argi uzten du posible dela gaur egungo Burgos-Gasteiz, Gasteiz-Iruñea eta Iruñea-Zaragoza ibilbideetako trenbideak egokitzea eta berritzea.

Proiektu eoliko eta fotovoltaikoei dagokionez, badaude pabilioi eta poligono asko plaka fotovoltaikoak jartzeko eta hori aprobetxatu behar da; ez dira jarri behar larreetan eta nekazal guneean. Espazio guztiak bete ditugu gizakiok, eta mendiak dira gelditzen zaizkigun eremu publiko natural bakarrak; aurreikusita dauden makroproiektuekin horiek ere zapuztuko ginituzke.

Nekazaritzaren arloan, berdin. Ez da bidezkoa hainbeste hektareako negutegiak egitea. Proiektu bat dago Araban 60 hektareako negutegiak egiteko. Horretarako, lehenbizi lurra kentzen dute, gero zementua bota, eta horren gainean eraikitzen dute negutegia. Laborantza hidroponiko deritzona erabiltzen dute, ur kopuru handia behar duena, baita ongari eta pestizida asko ere. Gainera, horrelako negutegiek energia asko behar dute. Gure apustua da nekazaritza ekologikoa, bertakoa, txikia eta dibertsifikatua. ●

Cicindela Juengeri



ARITZ GALARRAGA

XX. mende, orain bai, osoak inoren biografia gurutzatu badu, hori da Ernst Junger –tira, beti ere non kokatzen duzun XX. mendearen bukaera: Joseba Gabilondok 2012an ezarri zuen, *Martutene* eleberraren argitalpenarekin-. Junger, jaio baitzen 1895ean, hiltzeko ia 103 urterekin gizaldiaren azkenetan. Baina zera biologikoa baino: bere idatziek bilakatu dute XX. mendearen ordezkari behinena. Ordezkari ezeroso, ordezkari desatsegin, ordezkari arbuigarria. Nazionalsozialismoaren aitzindari, demokraziaren etsai, humanismoaren aurkako, gaur egunean bere egiten du, ez motiborik gabe, Alemaniako ultrasokuinak.

Gauza konplexuagoa ote zen, ordea. Arte kateko dokumental bati esker jakin dut: pasio batek bizi zuela, naturak, zehatzago entolomogiak, are zehatzago kakalardoek. Hogeita hamar mila espezieko bilduma bat zeukan etxean. Espezie batzuei izena ere jarri zien; bati, adibidez, bat oso deigarria: Cicindela Juengeri, alegia, bere izena. "Behatzaile ona da, baina bahitzaile ona ere bai", bere burua deskribatzen ariko balitz bezala. Bere burua baitago bere produkzio guztien erdigunean, objektibo eta behatzaile dirudien horietan ere. Behatzaile handia izan baitzen, baina behatuz, beti bere burua behatzen baitzuen, galderak pausatuz gauzak sentitzeko moldeaz, gauzak ikusteko moldeaz. Gezurra dirudi gerrako gizona deitu izan dena, gerra deskribatu zuena erabateko hoztasunetik, gero entomologian, zehatzago kakalardoekin laketu izana.

Nik, gauza hauetan –eta gainerako guztietan– Ingeborg Bachmannengandik gertuago nagoen honek –"Natura ez zait batere interesatzen. Apenas ezberdindu ditzaket hiru lore klase"–, ezin Junger bezalakoen aurrean jakin-min puntu bat sentitzeari utzi. Gainera, bakarrik irakurriko bagenu gertu dagoen jendea, ez genuke ezer asko ikasiko. Urrun dauden horiek ere irakurri beharko genituzke, beraz, zeri buru egin behar diogun jakiteko, besterik ez bada. ●



Etxebizitza

Miarritzeko etxe turistiko bat okupatu du Alda mugimenduak. Airbnb plataforman duen iragarkia legez kanpoko dela salatu dute, ez duelako erregistro zenbakirik. Miarritzeko Herriko Etxeari eskatu diote salaketa jartzeko.

Gaztetxea

Arrotxapeko gaztetxea eraitsi dute, Iruñean. Utzita zegoen industria nabea 2016tik erabili dute, baina La Caixak, Iruñeko Udalak eta Juslaberri enpresak gazteen aurkako salaketa jarri zuten eta epailearen aginduz iraila hasieran hustu zuten gaztetxea.

Presoak

Presoen salbuespen legediari amaiera jartzeko eskatu dute milaka pertsonen Donostian, Sare Herriarrak antolatutako manifestazioan. "Euskal presoek oraindik ere bizi duten eskubideen urraketak konponbiderik gabe jarraitzea" salatu du Sarek.

EKONOMIA

KPIaren igoera, pobreziaren iragarle



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Momentuz %4tik gora dagoen KPIak (Kontsumorako Preziorren Indizea) soldatak eguneratzeko prozesua gatazkatsua izango dela iragartzen digu. Okertzeko arrisku handirik gabe aurreikusi dezakegu gainera, langile gehienok erosahalmena galduko dugula. KPIaren erreferentzia baztertu duten hitzarmenak, administrazioak erabakitzen dituen igoerak, enpresek momentuaren arabera hitzarmena alde-bakarrez ez aplikatzeko ahalmena edukitzea... Formulak ez zaizkie falta.

KPIaren auzia ertz horretatik aztertzea ezinbestekoa da, baina begiratu dezagun lan munduaren bazterretan daudenen egoerei zor diegun arretarekin. Soldatak defendatzeko inolako aukerarik ez dutenek, lan merkatu ez erregularrean dabilzanak, prestazio sozialak jasotzen dituztenak izango dira, zalantzarik gabe, erosahalmena bereziki galduko eta sufrituko dutenak. Izan ere, KPIa berdina da guztiontzat, baina bere gorabeheren ondorioak ez.

Bizitzaren garestitzeak bereziki zigortuko ditu alargunak, diru sarrera txikiak eta ezengokorrak dituzten langileak, bizitzeko oinarritzakoak diren premiak dirulaguntzen bidez asetu behar dituztenak. Oro har, diru sarrera gutxi baina gastu asko dituzten pertsonak. Hasi gara entzuten KPIaren hazkundeak enpresetan arazoak sortuko dituela, gastu publikoaren bilakaera okertuko dela, soldatak kaltetuko dituela... Hala da bai. Baina KPI igoera horren ondorio lazgarriena pobrezia areagotuko duela da. Eta gutxi hitz egin da horretaz oraindik.

Gure bizi baldintzak erosahalmenaren arabekoak egin dituen eta merkatuaren menpeko egin gaituen eredu honek jarri gaitu KPIari begira berriro ere. Baina begien aurrean dugun arazo pobrezia da, eta ezin dugu beste aldera begiratu. ●

ANALISIA



DANI BLANCO

Zuk diozu pirolisia, nik diot erraustegia

URKO APAOLAZA AVILA

Komunikazioaren munduan oso ezaguna da BBCren titular ironiko bat: *You Say Tomato, I Say Bailout* (Zuk diozu tomate, nik diot erreskate). 2012ko ekainean Luis de Guindos Espainiako Gobernuako Ekonomia ministroak eginahalak egin zituen prentsaurrean "erreskate" hitza ez erabiltzeko, eta bankuei emandako 100.000 milioi euroak "finantza babesa" zirela esan zuen. Errealitatea eufemismoekin ezkututzen saiatzean, malo, sinesgarritasuna erabat kentzen dio adierazi nahi denari, kazetari britainiarrak agerian utzi bezala.

Bergaran paper lantegien hondakinak tratatzeko planta bat eraiki nahi dutela iragarri du Alacanteko Greene Waste to Energy S.L enpresak, Euskadiko Paperaren Klusterrak sustaturik. Paper industriako lohiak eta errefusa "termokonbertsio-prozesu jasangarri" baten bidez tratatuko dituztela esan du, zehazki, enpresa horretako ordezkariak *Goiena* aldizkarian. Pirolisi sistema erabiliko dutela ere esan dute, eta ekonomia zirkularrean sartzen dela, eta "balorizazio materiala" erabiliko dutela...

Berria-k argitaratu duenez, urtean 155.000 tona paper hondakin kudeatuko dituzte Bergaran, eta paper fabrikek Zaldibarren uzten zituzten -eta zabortegia hondoratu zuten- milaka tonentzako "irtentzako" bat litzateke planta hori. Pirolisiarekin oxigenorik gabe hondakin organikoa kimikoki deskonposatu ostean, "errekuntza" bidez tratatuko lituzkete hondakinak.

Zenbat hitz, atzean dagoen tomateari bere izenez ez deitzeko: Bergaran beste erraustegi bat jarri nahi dute. Hala dio behintzat Ekologistak Martxanek. Talde honetako kideek azaldu dutenez, pirolisi sistemak duen ezberdintasun bakarretakoa da ke gutxiago sortzen duela. Gainerakoan, ez ditu hondakinak ezabatuko, beste batzuk sortu baizik, tartean metal astunak, dioxinak eta furanoak, diote ekologistek. Zero Wastek, Gaia errausketaren aurkako munduko aliantzak edota Greenpeace ere gauza bera diote: sistema pirolitikoak errausketaren hain antzekoa dela, ezen erraustegi dei diezaiokegula. Hortaz, zuk diozu pirolisia, nik diot... ●

105

lagun erreskatatu ditu Mediterraneoan Aita Mari ontziak. Noraezean lau egun zeramaten, funtzionatzeari utzi zion motor bakarreko ontzian. Erreskatetik egun batzuetara, Sizilian lehorreratzeko baimena eskuratu zuen Aita Marik.




30

orduko lan astea, 1.400 euroko gutxieneko soldata eta erretiroa 60 urterekin hartzea proposatu ditu LABek. Lan Kode eta Gizarte Segurantzaren Lege berriak ezartzeko bi lege-proposamen aurkeztu ditu Gasteizko Legebiltzarrean, baina Euskal Herri osora zabalduko du proposamena.



%81

Gasteizko ikastetxeetako patio eremuen %81 asfaltoa edo bestelako zoru irazgaitza da, eta %19 baino ez da berdea. 22 ikastetxetan, eremu berde bakar bat ere ez dute kanpo-espazioetan. Hiriburuko 109 eskola azertu dituzte, eta ondorioa garbia da: berdegune gutxi, gutxiegi, dute eskoletan.



GORABEHERAK

Bada, gazteen hedabide berria.

Ipar Euskal Herriko gazteen komunikabide elebidun berriak *Bada* du izena, eta Instagramen eta Facebooken hasiko du bidea, astero aktualitateko gai bat eta gertakarien bilduma eskainiz. Euskaraz eta frantsesez arituko da, eta inizatiba ekologista, feminista, euskalzale, herrikoi eta antiarrazista dute oinarri.



Irun eta Hendaia arteko muga hetsirik.

"Terroristen mehatxuak izugarri handia izaten segitzen duela" argudiatuta, Frantziak dituen muga administratiboek hetsirik segituko dute gutxienez apirilaren 30a arte. Bidean dabilzan migratzaileei traba arriskutsu hau inposatzen segitzen du beraz Frantziako Gobernuak.



Zer da ezagutza adimen artifizialaren garaian?



DIANA FRANCO

Azaroan mahai-inguru batean parte hartu behar dut beste emakume batzuekin batera, adimen artifizialen adituak ez baina gai honen inguruan zenbait hausnarketa egiten gabiltzanak. Sakontzeko aukera ederra. Ezagutzaren zentzuaz hausnartuko dugu, adimen artifiziala areagotzen ari den garaioan.

Hitz asko agertzen dira nire buruan ezagutzaz pentsatzen hasten naizenean: datua, informazioa, jakintza. Bestalde, adimen hitzak sena ekartzen dit burura.

Hitz horiek banatuko banitu, bi talde osatuko nituzke: alde batetik gorputzari lotuak egon barik irudikatu ditzakedan hitzen taldea: datua, informazioa, ezagutza, adimena. Bestetik, gorputza barik irudikatu ezin ditudan hitzak: jakintza, sena.

Gizakiok Erdi Arotik sena eta jakintza bezalako hitzengandik urruntzen joan gara pixkanaka-pixkanaka, eta ezagutza eta adimena gisako kontzeptuetara hurbiltzen, azken horiek bizi dugun mundua eta bere ezaugarriak deskribatzeko eredu bat direlako. Eredu horrek gure alde basatienetik aldentzen laguntzen gaitu, bidean zenbait gauza galduz, gure gorputzarekiko eta naturarekiko lotura, besteak beste.

Nature aldizkariak 2017ko zientzia artikulua batean kontatu zuen Google-en DeepMind adimen artifiziala gai izan zela *Go* jokoaren inguruan gizakion laguntza barik ezagutza sortu eta munduko jokalaririk onenari irabazteko. Hala baieztatu zuen adimen artifizialek ezagutza sortzeko gaitasuna izan dezaketela.

Gaur egun, datuak informazio eta informazioa ezagutza bihurtzen dakiten adimen artifizial teknologien garapena gertutik ikusten ari gara. Zelan eragingo dio horrek gure mundua ulertzeko moduari? Zelan eragingo dio gure arteko harremanei? Zelan gainontzeko izaki bizidunekin ditugun harremanei? Zelan gure gorputzarekiko dugun harremanari? ●

Qatarren benetako gola

AXIER LOPEZ

Qatarrek urteak daramatza nazioarteko bere nortasun publikoa berreraikitzeke kanpaina egiten. Izan ere, diktadura izatearen 'ñabardura txiki' hori ez da oso salgarria izaten. Estrategia diplomatiko eta finantzario horren barruan, futbola funtsezkoa da. Barcelona FC taldeak Qatar izena eraman du mundu osoan barrena bere kamisetan idatzita, emir qatartar kapitalistek Europako hainbat futbol talde bereganatu dute, besteak beste PSG astronomikoa, eta, hori gutxi balitz, datorren urtean munduko futbol txapelketa egingo da duela gutxi basamortua ziren beren lurretan.

Estatu baten dopin finantzarioaren adibiderik onena da Qatar. Fluxua izugarria da. Aurton, Hakimi, Wijnaldum, Donnarumma, Ramos eta Messiren fitxaketekin, Nasser Al-Khelaifiren menpeko PSG munduko bigarren klub garestiena da. Manchester City bakarrik dago haren gainetik, esplotazioaren eta absolutismoaren beste paradisu batek kontrolatua: Arabiar Emirerri Batuak. 2005ean Qatar Sports Investments (QSI) sortu zutenetik -kirol arloan inbertsio handiak kudeatzen espezializatutako elkarteak- emirren mugimendu astronomikoak kirolean, ez bakarrik futbolean, etengabeak eta itzelak izan dira. Horiei esker gaur egun Qatar eta nazioarteko futbola estuki lotuta doaz ezinbestean.

Bilboko portutik igaro ondoren, Yemengo herritarren artean lehertzen diren bomba eta armetan ere inbertitzen ditu milioiak Qatarrek, baina bere


benetako boterea ez dago armadan. Nazioarteko publikoarentzat irudi erakargarria sortzea ezinbestekoa da Qatarren "arrakastaren" funtsa ezkutatu ahal izateko: botere-abusua eta giza eskubideen urraketa sistematikoa.

Kolonia ingelesa izandakoak 1970eko hamarkadan lortu zuen independentzia. Orduetik, Al Thani dinastiaren agindupean, erregimen politiko absolutu eta monarkikoari eutsi dio, lege islamikoa, Xaria, justizia sisteman txertatuta. Erosteke ahalmen handiena duen munduko herrialdeetako bat da -44.000 eurotik gorako per capita errenta-, erregai fosilen ustiapen masiboari (gasa eta petrolio nagusiki) eta langileen esplotazio basatiari (batez ere migratzaileena) esker. Aurten go otsailerako, *The Guardian*-ek zabalduko ikerketa baten arabera, 6.500 langile migratzaile baino gehiago hil ziren 2022ko mundialerako azpiegiturak eraikitzeke lanetan. Qatarko kasak kontrolatzen dituen diru-kopuru izugarri horiek nazioarteko islamismo jihadistaren makinaria - Anaia Musulmanetik hasi eta Estatu Islamikoraino- ondo koipeztatu duela salatzen duten kritikak etengabeakoak dira.

Baina Qatarren luxuaren atzean dagoen ustelduraren eta esplotazioaren ebidentziak handiak eta agerikoak izanik ere, futbolariek ematen dion erakusleihoa arma izugarria da bere posizio globala sendotzeko, diktaduraren irudia garbitzeko prest dauden finantza-eliteen txaloen eta futbolzaleen oihuen artean. ●



Okupazioaren garaipena ospatu dute Lurraman

 LURRAMA

ARBONA / Arbonan egin dute aurtengo Lurrama, Lurzaindiak eta ELBk okupatutako lurretan, bertako okupazioa egun horretan amaituz, eroslea erretiratzea lortu baitute. Urriaren 24ak markatu du okupazioaren 120garren eta azken eguna eta berezia izan da 2021eko Lurrama. "Gure lurra, gure jatekoa" lelopean egin dute edizio hau: "Gure etxetik hurbil dena jaten badugu, bioaniztasun landatua eta bertako arrazak babesten ditugu, energia aurrezten dugu, eta burujabetzarako bidea hartzen".



COVID-19

Osasun pasearen derrigortasunaren aurkako ekimenak emendatzen ari dira. Bagabiltza biltzarreko kideek Donibane Garaziko mediateka okupatu zuten, paserik aurkeztu gabe, eta Ipar Euskal Herrian Ezpass! Nora Goaz? kolektiboa ere osasun pasearen aurka antolatzen hasia da.

Kalamua

Luxenburgok kalamua etxean hazi eta kontsumitzea legezkatuko du. Heldu bakoitzak lau kalamu landare landatu ahal izango ditu etxean, erabilera pertsonalerako. Hain justu, kalamua arautzeko lege-proposamena tramitatzea atzera bota berri dute Espainiako Parlamentuan.



1961EKO URRIAK 17: FRANTZIAREN POLIZIAK ALJERIARRAK HIL ETA SENA IBAIRA JAURTIKI ZITUEN EGUN BELTZA

Hirurogei urte pasa dira Parisen gertaturiko sarraskiaz geroztik. 20.000 eta 40.000 aljeriar artean atera ziren karrikara, modu baketsuan, Frantziaren kolonia zen Aljeriaren independentzia aldarrikatzeko eta aljeriarrei bideraturiko etxeratze-aginduaren bukaera galdetzeko. Paretik, sekulako errepresioa jaso zuten: desagertuak, hamarnaka eta segur aski ehunka hildako, 12.000 atxilotu, ia 2.000 Aljeriako atxikitze-esparruetara kanporaturik eta ehunka ospitaleratu. Hamarkada luzeetan Frantziak isilean atxikiarazitako gertakizunari buruz argia egiten ari da poliki-poliki. Aitorpenaren eta erreparazioaren bidean, “Estatu-krimena” aitortua izatea nahi dute biktimek eta haien ondorengoek.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bigarren mundu gerlaz geroztik Europa mendebaldean gertatutako hilketa eta polizia indarkeria kasurik handiena izan da 1961eko urriaren 17ko triskantza”. Emmanuel Blanchard historialariaren hitzak dira, Parisen kokaturiko Immigrazioaren Historiaren Museoaren webgunean entzungai den elkarrizketa mamitsutik hartua. Egun horretan aljeriarrek Parisen pairaturiko errepresio odoltsuaz ari da. Aljeriaren independentziaren alde borrokan zebilen FLN Askapenerako Fronte Nazionalaren Frantziako federazioak deiturik, karrikara atera ziren 20.000 eta 40.000 aljeriar artean –“Aljeriako frantses musulmanak” izendatuak, Frantziaren kolonia izanik Aljeria-. Independentzia aldarrikatzea eta aljeriarrei bideratu etxeratze-aginduaren bukaera eskatzea zuten xede.

Lau zenbaki, triskantza irudikatzeko: 12.000 aljeriar atxiloturik, hildakoak 30 eta 300 artean –bertsio gehienek ehuneh gora zenbatzen dituzte-, 300 bat ospitaleratu eta 1.780 bat Aljeriako atxikitze-esparruetara kanporaturik.

Ratonnade erraten zaio magrebtarren aurkako bortizkeria fisikoari, frantsez *raton* arratoia denean, eta batzuek horrela izendatzen dituztenean magrebtarrak. Ekintza hori definitzeko hitz berezi bat ukaiteak berak anitz salatzen digu bortizkeria honek frantziar lurraldean hartu izan duen lekuaz. 1950. eta 1960. hamarkadetan eguneroko ogi zi-

ren, batez ere aljeriarren kontrakoak, 1954-1962ko Aljeriako independentzia gerra dela eta. 1961eko urriaren 17ko Pariseko sarraskia izan zen *ratonnade* odoltsuenetarikoa, urte luzeetan Estatu gezurraz eta zentsuraz estalitakoa.

“Egun horretan poliziak ez zuten ordenaren atxikitze operazio bat bideratu, egun horretan sarekada alimale bat gertatu zen. Begi-bistakoa zen, Poliziaren Prefekturak goizetik errekesionatu zuten Palais des Sports –garaian Pariseko gelarik handiena-, nahiz eta azken honen ikusgarri gela atxiloketa-esparru bihurtzerik ez zuten nahi”, Blancharden arabera.

Frantziaren eta GPRA Aljeriako Errepublikaren Behin-behineko Gobernuaren artean negoziazio bete-betea zirela, tentsio ikaragarria zegoen bi aldeetan artean, baita alde bakoitzaren barnean ere. Aljeriarren atxiloketa, tortura zein desagertuak abiadura beldurgarriaren emendatuz zihoazen, eta parean, FLN erakundearen atentatuak ere aktualitate egiten zuten. FLN kolpatzea zen etxeratze-aginduaren helburua: bereziki gaeuz bideratu diru bilketak blokeatuz erakunde ahultzea.

Txabola-auzoetatik atera eta “etxeratze-agindua modu masiboan boikotatzeko” deia luzatu zien bertako aljeriarrei FLNen Frantziako federazioak. Karririk “modu baketsuan” hartzeko manua argia zen, armarik gabe bertaratzea galdetua zitzaien. Horrela juntatu ziren milaka,

igandeko jantzi ederrenak jantzirik, familia ala lagun artean Parisera sartzeko xedez. Baina ezin izan zuten: poliziak hor zituzten metro irteeretan, autobus geldilekuetan ala karrika izkintetan –orotara, 10.000 polizia-, golpez xehatzeko eta atxilotzeko. “Ahulenak, odoletan zirenak, hil arte xehatzen zituzten, nire begiekin ikusi dut hori”, kontatzen zuen 1997ko oroitzarreen Saad Ouazenek. Poliziaren aitorpenak ere badira: “Mugitzen zen guztia tirokatzen genuen, izugarrikeria zen, bi orduko giza-ehiza izan zen”, Raoul Letarden hitzetan.

Errepresioa aurreikusia bazuten ere, sekula ez zuten irudikatu gisa horretakoa izanen zutenik. Lekukotasunek hontzikara ematen dute: modu baketsuan zebiltzan tirokatuak, eskumuturrak eta orkatilak soka batez estekaturik, hilik ala bizirik Sena ibaira botatuak, inguruko oihanetan urkatuak. Frantziaren poliziaz gain, “Indar polizial lagungarria” deitu antolakundeko 60 bat *harki* (Frantziaren alde borrokatu zuten aljeriarrak) aritu ziren manifestariak xehatzen, FLNaren kontrako herrak bultzaturik.

12.000 atxilotuak egunak pasa zituzten komisariatetan, Palais des Sports eta Pierre-de-Coubertin estadioan: “Hiru egunez horrela, aulki batean jarririk, apairurik gabe, urik gabe, zigarretarik gabe, ez genuen ezer. Nire inguruan bospasei kolpatu nituen. Hor ginen, denok negarretan. Hilen ginela uste genuen denok”, kontatzen du Ali Djermanik *Scènes*



ERREPRESIO ODOLTSUA.

Modu baketsuan, armarik gabe bertaratzeko deia luzatua zien aljeriarrei FLN egituraren Frantziako federazioak. Horrela ziren eta hala eta guztiz ere, parekoek tirokatu eta xehatu zituzten.

de la guerre d'Algérie en France dokumentalean. Hortik, anitz ziren zuzenean Aljeriako zerrategietara bidaliak izan, eta handik anitz desagertu ziren. Garaian Maurice Papon zen Pariseko Polizia Prefeta, tristeki eta odoltsuki ezaguna zaigun gizona. Gizadiaren kontrako krimena leporatu zitzaion 1997an, 1942tik 1944ra Girondako Prefekturako idazkari nagusi zela Auschwitzera ehunka judu deportatu izanagatik. Hamar urteko kartzela zigorra jaso arren, hiru urteren buruan libratu zuten, osasun arazoak zituelako. 2007an hil zen 97 urterekin, bakean, urriaren 17 horretako sarraskiaren arduradun nagusia izateagatik sekula epaitua izan gabe.

1990. hamarkada itxoin behar izan da gertakari beltz horri buruzko egiari zor zaion tokia bideratzeko.

ESTATU GEZURRA ETA ZENTSURA

Ordura arte, indarkeria eta hildakoen kopuruak isilduak ziren modu eskandalagarri batean. Ofizialki, hiru hildako eta 64 kolpatu izan ziren. “Aljeriako frantziar musulmanak pistola kargatzen” edota “Aljeriako frantziar musulmanak metrailetaz tirokatzen”... errealitate bat isildu eta beste bat irudikatzen aritu ziren komunikabideak. Jacques Panijelen *Octobre à Paris* dokumentala zein Colette Péju kazetariaren liburua: zentsura sistematikoa izan zen urte horietan. “Estatu gezurra eta zentsura hain dira handiak, non eta ezinezkoa zaigun hildakoen zenbaketa zuzena egitea”, Blancharden hitzetan. Gainera, 1962ko Aljeriaren independentziarekin bideraturiko amnistiak ekarri zuen salaketa guztien bazterketa.

Egun horretan jipoiturikoen umeen belaunaldiak du hitza hartu, bazterrak astinduz eta egia plazaren erdira eramanez. 1991an Jean-Luc Einaudi historialariak publikaturiko *La Bataille de Paris* mugarrira izan zuten. Funtsean, Paponek berak salaketa jarri zuen Einaudiren kontra, difamazioa leporaturik –Justiziak errugabetu zuen historialaria–.

1961eko urriaren 17koa “errepresio kolonoa”, “sarraski kolonoa” izan zen Blancharden arabera. Frantziak bere ardurak aitortu eta “Estatu krimen” gisa ezagutzera nahi dute biktimek eta haien ondorengoez. Halakorik ez du egin 60. urtemuga honetan Emmanuel Macronek, nahiz eta lehen aldikoz ofizialki bideraturiko oroitarrean egon den, “sarraski bar-kaezina” deitoratuz. Urrats garrantzitsua bada ere, ez da nahikoa mina arintzeko. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com

Iñaki Goirizelaia

EHU, INGENIERITZA, DANTZA



DIRU PUBLIKOA EUNEIZ FINANTZATZEKO ERABILTZEA ONARTEZINA DA



EHUko errektore izan zen 2009-2017an. Ez da lar esatea Juan Inazio Perez Iglesiasen eta Iñaki Goirizelaiaren artean ezarri zituztela oraingo gure unibertsitate publikoaren zimentarriak, haien gainean jarri dutela beren alea ondoko bi errektore Nekane Balluerkak eta Eva Ferreirak. Euskal Herria helburu, ezinbesteko baliabide baitugu unibertsitatea, EHU bat sendoa.

 MIEL A. ELUSTONDO  DANI BLANCO

Gisa da zuri osasunaz galdetzea: minbizia, bihotzekoa...

Minbiziarena, gaintitze prozesu bat da. Interesgarria iruditu zitzaidan nire esperientziaren berri ematea, eta horixe esatea, gaixotasuna askotan gaingitu egiten dela. Artikulua argitaratu nuenean, hemezortzi urte betetzen ziren minbizia detektatu zidatenetik: adin nagusitasuna, beraz. Nik birritan ospatzen dut urtebetetzea, jaio nintzen eguna, eta kimioterapia hartzen hasi nintzen eguna, urtarrilaren 11 batean. Berririo jaiotzea izan zen hura.

Beste artikulu bat ere gogoan daukat, metroak EHUren Leioako campusera heldu behar zuela eskatzen zenuen... Aspaldiko kontua hori ere. Ez da gau-

zatu. Esaten zuten Leioako campusean ez dagoela metro adar batek eskatzen duen behar besteko mugimendua. Ez zatekeela errentagarri, alegia. Baina halako azpiegitura handi bat egiten denean, errentagarritasunari begira jartzen bagara, akabo! Hori gabe, askotan pentsatu dut unibertsitatea ez dela lehentasunen artean egon. Gauzak aldatzen ari direla ematen du.

Zer esan nahi duzu, orain unibertsitatea gure lehentasunen artean dugula?

Bai, gizarteak balio handikotzat dauka EHU, eta nik, berriz, funtsezkoa dela esango nuke. Pandemian bertan ikusi da hori. Pandemia garaian EHUK egin duen ekar-

pena oso ona izan da. Eman dugun informazioa kalitatezkoa izan da, bai edukiari, eta bai edukia transmititzeko moduari dagokienez. Egiten diren inkestetan ere, EHU da gizarteak hobekien baloratzen duen erakundea, edo erakundeetako bat. Eta espero dut erakunde publikoek EHUren aldeko apustua handitzea.

EHUko errektoreari beti egiten zaion galdera da ea gure unibertsitate publikoak Jaurlaritzaren behar besteko babesa jasotzen duen. Eta erantzuna behin ere ez da baiezko biribila.

Inor boterean dagoenean, mila gauza ditu eskuartean. Oraintxe, pandemia, pandemiak ekarri duen egoera, ekonomia, ga-



Iñaki Goirizelaia Ordorika

BILBO, 1958



Iñaki Goirizelaia Ordorika (Bilbo, 1958) Ingeniaritza Telematikoko katedradun eta irakasle EHUKo Komunikazioetako Ingeniaritza sailean. 1981ean hasi zen irakasle Bilboko Goi Ingeniaritza eskolan, eta unibertsitate publikoko errektore izan zen bi agintalditan. Dantzari porrokatua, Victor Olaetaren ikasle, Mungiako dantza taldeko dantzari eta dantza irakasle eta koreografo, *Bai, Bagara* dokumentala eta *Kantuetan dantzan* ikuskizunaren eragile da. Oraintsu, zientzia eta dantza bateratu ditu *Sareetan zehar dantzan, java erabiliz* liburuan.

tazka politikoa... Oreka mantentzea ez da erraza. Agintariek erabakitzen dute nondik joan, hortxe dituzte botoak, eta botoek horixe egiteko aukera ematen diete. EHUKo errektoreok ez dugu hor ezer esatekorik. Errektore nintzanean, askotan esan nuen EHUK finantzazio handiagoa behar zuela; askotan esan nuen non erabili behar zen finantzazioa. Askotan.

Gaur egun ere aurrekontu handiagoa behar du EHUK?

Nik uste dut, daukagun aurrekontuarekin pertsianak altxatu besterik ezin dugula egin. Eta asko da. EHU transatlantikoa da, ez da erraz kudeatzen. Milaka eskola ordu ematen dira egunero, zabalitzen dira ikerketa laborategiak, egiten da ikerketa, dibulgazioa eta jakintza-ren transferentzia. Egunero. Baina ahal dugun moduan egiten dugu. Ikerketaren aldeko apustua benetan egin nahi bada, diru askoz gehiago sartu behar da unibertsitatean. Ez bakarrik unibertsitatean, baina, hasteko, unibertsitatean. Barne produktu gordinarekiko egiten den ikerketa gastua, "inbertsioa" esaten dut nik, jaitsi egin da azken urteotan.

Zergatik ez da EHUn aldeko apustu sendorik egiten?

...

Hautu politikoa da?

Erabaki politikoa da... Historia aztertu behar da. Herri honetan ez dugu unibertsitate kulturarik izan inoiz. Salamancara [Espainia] joan, eta 800 urte dira sortu zutela. AEBetara joan eta, han, herri jaioberrian, jai eta hurrengo egunean hasi ziren unibertsitateak irekitzen: Massachusetts, MIT eta Harvard dira adibide. Puritanoak Ingalaterratik ihes egiten hasi zirenean, egun bat ere ez zuten behar izan unibertsitatea muntatzeko. Bazekiten han ezer egin nahi izatekotan, zer beharko zuten: unibertsitatea.

Hemen ez dugu gisako unibertsitate tradiziorik...

Hemen, hasteko, ikaragarri kostatu zaigu unibertsitate publikoa izatea.

Gure erreferentziarik sendoena Oñatiko Unibertsitatea izan zen, baina hura ez zen Oxford, ez Cambridge, hura elizaren inguruan mugitzen ziren hainbat jende oso interesgarriren ekimena zen. Hala ere, laster desageratu zen, inork ez zuelako hartan sinesten. Guk unibertsitate tradiziorik ez dugu. Deustuko Unibertsitatea hor da, baina hark ere orain dela gutxi arte ez du ikerketaren edo jakintza-ren transferentziaren bidea hartu, elite batzuk sortzea izan du helburu. Unibertsitate publikoaren egitekoa, hau da, ezagutza gizarte osoari zabaltzea, ez dakienari, eta ez daukanari, ezagutzaren bidez aurrera egiteko aukerak ematea... gurean 80ko hamarkadan sortu da.

“

Nik birritan ospatzen dut urtebetetzea, jaiotze eguna, eta kimioterapia hartzen hasi nintzen eguna, urtarrilaren 11 batean. Berritotze jaiotze izan zen hura”

Deustuko Unibertsitateak eliteak sortu dituela esan duzu. Handik sortuak dira EAJren buru asko eta asko.

Askok, baina zuk uste duzuna baino gutxiago. Egon da momentu bat non EAEko hiriburu etako hiru alkateak "gureak" izan diren, hiru herrialde etako diputatu nagusiak ere "gureak", eta EAEko lehendakaria ere, "gurea". Barkatu hitza txarto erabili badut, EHU ikasitakoak esan gura nuen. Eta, oraintxe momentuan, joan edozein ziklotako ikastetxe batera. Galdetu irakasleari non ikasi duen. Joan ospitale edo osasun zentro batera, eta galdetu sendagile edota erizainari non ikasi duen. Joan edozein enpresatara, galdetu ingeniariari non ikasi duen... Horrek aldaketa ekarriko du Herri honetara.

Euneiz bidea egiten ari da, Gasteizko Legebiltzarrean tramiteak betetzen EAJren eta PSEren laguntzaz.

Jendeak jakin behar du unibertsitatea zer den, zertarako den, eta zertarako ez. Joan Hego Amerikara. Mila unibertsitate baino gehiago ere badira, baita garajeetan ere! Hori gura dugu? Unibertsitatea sortu nahi dugu, dirua irabazteko? EHUra sartu ez diren ikasleak harrapatzeko, besterik gabe? Euneiz proiektua ez da unibertsitatea, tituluak ematen dituen enpresa bat



baizik, diru etekina helburu duena. Hor-txe dira Unibasq-ek egindako txostena, eta beste hainbatena: garbi esaten dute non diren gabeziak. Eta, beharbada, bidezkoa da helburua, baina diru publikoa asmo pribatu hori finantzatzeko bideratzea onartezina da.

EHUren errektore bazina, segur naiz ez zenukeela hain gordin adieraziko. Lasaiago hitz egiten da irakasle denean, errektore denean baino?

Kar, kar... Errektore zarenean, orekari eutsi behar diozu. Konplikatu da politikoki pentsatzen duzunaz hitz egitea, edo unibertsitateaz pentsatzen duzunaz argi eta garbi jardutea... Uste dut hauxe dela errektore kargua utzi eta ematen dudana lehen elkarrizketa. Parte hartu dut irratitelebistetakoz zenbait saiotan, baina hauxe duzu lehen elkarrizketa. Eta lau urte baino gehiago joanak dira... Errektore zarenean, irakasle eta langile guz-

tion errektore zara, eta hor denetarik dago. Unibertsitatea da Euskal Herri txiki bat. Laborategi ederra. Nahitaezkoa da oreka. Pentsatzen duzuna esaterik ez dago beti. Aldiz, orain, irakasle naizela, inolako arazorik ez daukat pentsatzen dudana argi eta garbi esateko.

Uste izaten dugu errektoreek, kargua utzi eta kito egina dutela unibertsitate ibilbidea. Zer bide egin du Iñaki Goirizelaiak kargua utzi eta gero?

Iñaki Goirizelaia da EHUko irakaslea, unibertsitate mundua maite du. Uste dut EHU herri honen etorkizunaren gakoa dela, herri honek etorkizuneari ezer egin nahi badu, EHU sendoa behar du. Askotan esan dut: EHU nolako, gure etorkizuna halako. Errektore kargua utzi nuenetik, irakasle naiz. Maite dut egiten dudana: eskolak ematea, ikerketa-talde bateko kide izatea, proiektuak gau-



DANTZA BERRIA

“Victor Olaeta izan zen euskal dantza taula gainean ipini zuen lehena, moldatuta, gauza berriak egiten. Nik ere hortik jo dut. Ondo ikusten dut. Baina horrek bestelako ondorioz ere ekarri du: herriko plazan egiten zen dantza desagertu egin da, dantza ia-ia ikuskizun bihurtu da, dantza soziala galdu egin da. Sokadantzan dantza soziala egiten zen, neska eta mutil eskutik helduta irteten ziren plazara. Aurrezku eta atzesku, denek egiten zuten dantza”.

DANTZA SOZIALA

“Jota, lehen, edozein herritan dantzatzeko zen. Guztiz dantza soziala zen. Harremanak sortzeko balio izan du denbora askoan, neska eta mutilak elkartzeko eta abar. Gero, txapelketak etorri ziren, dantzariak birtuosismo handiz dantzatzeko hasi ziren, eta jendeak, haiek ikusi eta pentsatu zuen ez zela haien modura dantzatzeko gauza. Ondorioa? Gero eta jende gutxiago ikusten dela plazan edo erromeria batean jota dantzatzeko”.

Baltsamazio, kontserbazio eta berreiraketan adituak.

Errausketak, beilatoki guztietan zerbitzua, baita aseguru-etxeekin ere. 24 orduz etengabe.

Munalurra 8, Usurbil (Gipuzkoa) • 943 362 163 • 660 388 652



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

zatzea, liburuak idaztea... Horixe maite dut, eta ez dut besterik behar. Ez naiz Iberdrolaren presidenteorde izateko jaio, hezkuntza publikoan sinesten dut, ikerketan eta ezagutzaren dibulgazioan, herri honek unibertsitate indartsu bat behar duela sinesten dut.

Unibertsitatean sinesten duzu, EHUn, buru-bihotzez. Herri honetan bezainbat, esango nuke, askotan, zure karguak zio, mihiari kosk egin behar izan badiozu ere.

Hau ez dut inoiz publikoki esan, baina esango dut hemen: gero eta independentistago naiz. Beti izan naiz, eta orain askoz gehiago. Eta nazioarteko eztabaida, foro eta bilkuretara herri bezala joan nahi badugu, unibertsitate indartsua behar dugu atzean. Unibertsitate indartsua. EHUK pauso asko eman ditu. Konparatu edozein unibertsitate inportanterekin, eta haietatik urrun gaude, baina berrogei urte baino ez ditu EHUK. Eta hemen inportantea ez da, bakarrik, non gauden, nondik gatozen eta nora goazen baino. Aurrerapauso handiak eman ditugu, eta, gaur egun, gure unibertsitatea ondo bideratuta dago. Baina falta zaigu, asko falta zaigu.

Egiten duzuna maite duzula esan diguzu, irakastea, ikertzea, idaztea... Liburu aski bitxia ekarriko diguzu laster.

Bai. *Sareetan zehar dantzan, java erabiliz.* Java programazio-lengoaia da.

Java erabiliz, dantzan. Zu, izan ere, dantzari zaildua zara.

Horixe galdetzen zidaten, errektore iza-teari utzi, eta zer egin behar nuen. Baten, erantzun nuen: "Errektore ez naiz nire bizi guztian izango, baina dantzari bai". Dantza maite dut, beti egin naiz dan-

tzaren munduan, Mungian eta Bilbon. Urte asko egin nituen Olaeta balletean. Victor Olaeta erreferentea izan dut, 50 urte egin arte egon nintzen berarekin dantzatzen. Askok ikasi nuen berarekin. Dantza munduan, herri honek eman duen erreferenterik inportanteena da. Zalantzarik ez daukat. 1973an dantza taldea sortu genuen Mungian, eta orain bertako dantza irakaslea naiz. Koreografiak ere sortzen ditut, gure sustrai eta dantzetan oinarritu eta gauza berriak egiten ditut... Nire bizitzaren zatirik inportanteenetariko bat da dantza. Hori barik ez nintzateke neu izango.

Ingeniaria, eta dantzaria.

Jendea ezustean hartzen zuen nire lanak. "Ingeniaria zara, eta dantzaria? Eta dantza klasikoa egin duzu, eta hau eta hura egin dituzu?". Bai, ingeniaria eta dantzaria, eta liburu berrian ere biak lotu ditut: klaseetan java programa erakusten ari nintzenean, dantza adibideak erabiltzen nituen, edo dantza talde baten gestio modua, edo halakoak. Azkenean, liburuan, dantzaren bat aipatzen dudana bakoitzean, harexek azalpena eta ilustrazioa egitea pentsatu nuen. Eta halaxe etorri da *Sareetan zehar dantzan, java erabiliz*, Maider Huartek lagunduta egin dudana.

Gogoan dudana ekitaldi bat, orain hogeitau urte baino gehiago... Lauaxetaren omenezko ekitaldia Gasteizko Santa Isabel hilerrian, poeta hil zuten hormaren kontra. Aurreksua dantzatzen zu, isiltasuna

beste musikaririk gabe.

Oso momentu berezia izan zen. Horrek badu esplikazioa. Lauaxeta ez zen Mungiakoa, baina han bizi izan zen, eta hantxe du familia oraindik. Uste dut 1976an izan zela, Gabon egunean ekarri zuten Lauaxetaren gorpua Mungia eta nik aurreksua dantzatu nuen, hura hilerrira eraman eta lurperatu baino lehen. Oso momentu berezia izan zen. Isiltasuna sekulakoa izan zen. Buruan gelditu zitzaidan isiltasun hura. Gero, urteetara, Gasteizen, berriro Lauaxetaren omenez dantza egiteko aukera izan nuenean, pentsatu nuen isiltasuna zela musikaririk onena. Biak ere oso momentu bereziak ditut nire bizitzan.

Dantzari, dantza irakasle, koreografo... zertan da dantza gure herrian, zuk ikusten duzunez.

“

Gero eta

independentistago naiz.

Beti izan naiz, eta orain askoz gehiago. Eta nazioarteko eztabaida, foro eta bilkuretara herri bezala joan nahi badugu, unibertsitate indartsua behar dugu atzean”

Dantza munduan ez gara izan gauza adostasun gutxieneko batera heltzeko. Hor da Dantzerti, baina han dantza klasikoaren aldeko apustua egin da, tradizionala hautazkoetan sartuta. Nire ustez, Jaurilaritzak horren aldeko apustua egin beharko

luke. Dantza tradizionalari buruzko ikasketak ezarri beharko lirake, eta, haien barruan, euskal dantzen lerro akademiko oso bat sortu, doktorego programa, gradua, masterra... Irlandarrena modura, adibidez. Irlandarrek ez dute enbaxadarik behar, eza-gunak dira, baina dantza ikuskizun bat egin eta munduko toki guztietara heldu ziren. Horixe enbaxadarik onena! Eta zer da euskal identitatea Ipar eta Hego Ameriketara, dantza ez eta! ●


MARMOLÉS
SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



Ke saltzaileak



**ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN**
EKONOMIALARIA

Ekintzaile indibiduala protagonista duen finantza erakunde baten azken iragarkia: *Amesten duzun proiektua egia bihurtu daiteke*. Diru laguntza baten bitartez, originala den ideia, proiektua, gorpuztu eta enpresa batean eraldatuko da, norberaren esfortzuaren bitartez. Administrazio publikoek urteak daramatzate ekintzailtza mota hori sustatzen, 2008ko Atzeraldi Handitik ona indar handia hartu duenak. Gazte langabezia tasa handia; kapitalaren alde erregulatuta dagoen lan merkatua; bizitza kostu hazkorrak; bizitza duin bat eskuratzeko enpleguak gero eta murriztagoak: garai hauetan; instituzio publikoen hautua argia da.

Pentsamendu positiboa oinarria duen bizitza filosofiak gero eta marketin indartsuagoa dauka bere alde. Adorea baldin baduzu, zure helburuak lortuko dituzu. Buruan duzun ideia hori jarraitu, kementsu. Merezi duzuna lortuko baituzu. Pentsamendu positiboa bultzatzen den ekintzailtza mota horrekin oso ondo lotzen da. Bestetik, meritokrazia daukagu. Merituen arabera lanpostua eta arrakasta lortuko dugu. Hoberenek hoberena lortuko dute. Gehiago ikasi, gehiago lan egin. Esfortzuaren bitartez, lehiatu eta merezi duzuna lortuko duzu.

Nor egon daiteke meritokraziaren aurka? Merituak egin dituztenak lanpostu hoberenekin ordainduak baitira. Nor egon daiteke ekintzailtzaaren aurka, norbere ametsak egia bihurtzearen

Meritokraziak
sustatzen duen
arrakastarekiko
jarrerak irabazleen
artean harrokeria
sustatzen du,
galtzaileen artean,
aldiz, umiliazioa

kontra? Nor egon daiteke esfortzu indibidualan oinarritutako pentsamendu sistema baten aurka?

Gure gizartean gero eta indartsuagoak diren ideia horiek tranpa handia ezkututzen dute. Ekintzailtza indibidual arrakastatsuen atzean –“garaje-ekintzailerearen” irudi erromantikoaren eredu–, nor dagoen azertu beharra dago. Sarritan baliabide ekonomikoak dituzten familiako kideak ditugu; beste batzuetan konexio politiko eta ekonomikoak dituztenak. Maiz, ekintzailtza indibidualaren proiektuak langile familiariko kide bat zorpetuko du, baina ez ditu bere ametsak egia bihurtuko, zorpetzearen ametsgaiztoa iritsiko da. Dirua erakartzeko dirua behar delako. Bidean, Administrazio Publikoek kapitalismo mota berrien aldeko baliabide

esleipena egiten dute, euren funtzio soziala eta lan merkatuko alde ahularen alde egitea alboratuz. Michael J. Sandel filosofoak meritokraziaren kontzeptua sakonki landu du, azpimarratuz ez dela aukera berdintasunik existitzen, gaur egungo gizartean utopia bat dena. Filosofoaren esanetan, meritokraziak sustatzen duen arrakastarekiko jarrerak irabazleen artean harrokeria sustatzen du; galtzaileen artean, aldiz, umiliazioa.

Ez gara era isolatuan bizi, ez gara lehian dauden norbanakoak, klase sozialaren arabera muga batzuk pairatuko ditugu, gizartea arautzen duten beste ezaugarrien artean. Bi pertsonen ikasketak berak eta esfortzu handia egin dezakete, baina horietako batek enpresa munduan murgildutako familia badu, errazago lortuko du lanpostu interesgarriago bat. Ekonomia feministak zaintzen garrantzia eta genero arrakalak ulertzeko erremintak eskaini dizkigu, meritokraziaren proposamena sakonki astinduz; Kropotkinen elkar laguntzak zaharkituta utzi du saldu nahi duten ekintzaile indibidualaren irudia.

Boteretsuenek sustatzen dituzten ideiek, sarritan sekta baten moduan funtzionatzen dute euren klase hegemonia zabaltzeko; kudeatzaile politikoek langileen artean ideia horiek hedatzea dute helburu, klase gatazka, beste borroka batzuekin batera, ikusgaitz egiteko. Ke saltzaileak salatu behar ditugu, ezkutatu nahi dutena azalaraziz. ●

Ahizpatasuna



JUNE FERNANDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Desboteretu egin nauzu”, bota zidan behin nire editore lana ondo hartu ez zuen kolaboratzaile batek erreportajea goitik behera orraztua ikusi zuenean. Kazetaritza masterreko gizonetzko zuzendariari iritzia eskatu zion eta hark zuzenketekin bat egin zuen. Orduan, nigana itzuli zen barkamen eske. Nork desboteretu zuen nor?

Azken asteotan euskal sare sozialetako bazterrak harrotu dituen eztabaidak pasadizo hau ekarri dit gogora. Iruñean hirugarren aldiz ospatuko da Letraheridas literatura feminista jaialdia eta, hirugarren aldiz, gonbidatuen artean idazle euskaldunik ez dagoela kritikatu dute Kattalin Miner idazleak eta Uxue Razquin editoreak. Antolatzaileak kargu hartu die jaialdiko Instagrameko kontutik, esanez haren lana publikoki zalantzan jartzea ez dela batere feminista eta sare sozialetan elkar zaindu beharko genukeela. Aurreko pasadizoan nola, kritikak neutralizatzeko feminismoaren erabilera ikusi dut nik. Miner eta Razquinen iruzkinak “maitasunezko interpelazioak” (Saioa Iraolak Guatemalan ikasi zuen kontzeptu ederra) iruditu zitzaizkidan: biek nabarmendu zuten jaialdiaren erakargarritasuna, maila altua eta parte hartzeko nahia.

Paradoxa da antolatzailearen purrustada bai, izan dela oldarkorra, bere burua biktima gisa aurkeztu badu ere. Kritikaren zilegitasuna onartu ordez, programatzaile gisa duen askatasuna aldarrikatu du (Lucia Baskaranek erantzun du emakume gabeko ekitaldia antolatu duen *señoro* baten neurriko argudioa dela), euskaraz irakurtzeko hizkuntza gaitasunik ez duela azaldu du (ondoren Uxue Alberdi, Eider Rodriguez eta Katixa Agirre gaztelaniara itzuliak irakurri dituela onartu badu ere) eta gaineratu du zaila dela asmatzea euskara gaztelaniazko ekitaldi batean nola txertatu.

Edonola ere, ahizpatasunaren kontzeptuari buruzko eztabaida intersektionala aletzeko balio dezake gertatutakoak. Terminoa Kate Millet idazle estatubatuar zuriak erabili zuen emakumeen batasunaren alde egiteko, “klase sozialen edo jatorri etnikoaren arabera bereizketarik gabe”. Latinoameriketako eta Espainiako Estatuan Marcela Lagarde antropologo mexikarraren sororitatearen interpretazioa erroto da: “Feminismoan aurkitzen eta aitortzen diren emakume ezberdinen eta parekoen arteko adiskidetasuna”.

Haatik, afrofeminismoak, lesbofeminismoak, transfeminismoak eta feminis-

mo marxistak, besteak beste, kritikatu egin dituzte diskurtso horiek, klase/arraza/sexualitate eta bestelako zapalkuntzen bortxa gutxiesten dituztelako. Bestela esanda, emakume guztien batasunaz eta adiskidetasunaz hitz egiten diguten feministen pribilegioak eta diskriminazio praktikak seinatatu dituzte. Letraheridasen kasuan, hegemonia linguistikoa.

Hamaika adibide aipa ditzakegu. Lesbofeministek parte hartu dute abortatzeko eskubidearen aldeko borrokan, baina haien sexu eta ugaltze eskubideak ez daude agenda feministaren erdigunean. Feminista arrazializatuak kalera atera ziren Sanferminetako bortxaketaren biktimari elkartasuna adierazteko, baina oso jende gutxi parte hartu zuen Huelvako marrubi-biltzaileen aldeko elkarretarazteetan. Halaber, ingelesezko lelo transfeminista batek dio “*Support your sisters, not only your cis-ters*” (hitz jokoa, “babestu zure ahizpak, ez bakarrik zis-ahizpak”).

Badakit zaila dela maitasunezko interpelazio horiek ondo hartzea proiektu batean gure ilusio eta indar guztia jarri dugunean, baina benetako ahizpatasunerantz aurrera egiteko modu bakarra dugu. ●



MIKEL IRIZAR
EUSKALGILEA

Azken perediküa

Eteten ari naiz euskal komunikabideetan ditudan maiztasun jakineko kolaborazioak. Hiru hamarkada luze daramat paperean, irratian nahiz telebistan iritzia ematen, beti ere herri-gintzari aukerak bilatu nahian, lis-kar hutsetik harago. Ez da lehen etena, noizbehinka egin izan ditut aldi batekoak; baina oraingo hau izan daiteke eten betirakoa.

Badut arrazoi zuzen bat. Ordezkaritza instituzional berri bat hartu dut aurten-go udan, eta halakoetan nire araua da alor publikoan ahots pertsonala isiltzea, ordezkatuei zor diedan errespetuz. Baina, zeharkako eragin batzuk ere nabari ditut, iraupen mugatua duen konpromiso hori baino luzeagoak.

80ko hamarkada amaieran iritzi-emaile hasi nintzenez jende gutxi zegoen euskaraz horretan jarduteko; gaitasuna eta ausardia, biak behar ziren eta artean ez zeuden sobrate. Aldiz, egunotan irakurri dut bagarela 15.000 txiolari aktibo euskaraz, eta urtean 2,5 milioi txio argitaratzen ditugula. Badago hor iritzia emateko gogo!

Aukera egonda, komunikabideek profitatu egin dute erruz handitzeko iritzi tarteak, bereziki tertuliak. Eta irudipena daukat ugaritasunarekin nolabaiteko hutsaltzea ere etorri dela: azkarrago esan behar da dena, eskatzen

da solaskidea zirikatzea eta ikuskizuna elikatzea, audientzia helburu. Hala ere, iritzi pieza bikainak eta tertulia aberats asko aurki daiteke euskarazko komunikabideetan. Gero eta zailagoa da, niretzat behintzat, ekarpen esanguratsuak egitea.

Bestalde, adina ere pilatzen ari zait. Wikipediaren arabera sartua nago 'zahar gazteak' multzoan eta, poliki bada ere, apalagotzen ari zait egunero-koa zelatatzeko neukan grina. Niretzat iritzi-emaile lanean zati handiena ez da izan idaztea edo esatea, baizik eta irakurtzea edo ikus-entzutea, iritzi propioa sortzeko. Urteetan izan naiz albistegien menpeko, eta boladatan nekez hasten nuen eguna egunkari pare bat orrazteke. Orain libreago nabil, neurri handian sare sozialei esker, baina grina ez da lehengoa eta gaiak pasatu egiten zaizkit, asko axola gabe. Aspertu samar ere banago agenda komunikatibo derri-gorrezko batekin ibili beharraz, amorrua ematen dit ikusteak nola eramaten gaituzten gai batetik bestera nahieran, komeni dena monotema bihurtuz komeni ez dena ezkutatzeko. Ahal dudan heinean nik erabaki nahi dut zerk kezkatuko nauen eta zerk poztuko.

Honenbestez banoa predikariaren pulpituak, seguruenik betirako. Urteotan gaizki esanak barkatu. Aio. ●



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Elektrizitatea, giza eskubide?

Iristen ari da, badugu abisua gasolindegien zenbaki distiratsuetan eta faktura elektrikoan: energi iturri fosilak amaitzen ari dira.

Pobrezia energetikoa mehatxu dugu eta gure muturrean poltsikorik lotsaga-beenak betetzen diraute. Kapitalismoak energia berriztagarriak urardotu ditu, gutzia bereganatzeko gaitasuna baitu. Kalera irteten gara, autoprodukzioa salbuespen dugun giza antolakuntza honetan enpresa handien menpeko garrelako. Baita ere gure bailarak parke eolikoz eta edonola bete nahi dizkigutela.

Sistemak esku batez bestelako energia iturriak erabiltzeko teknologia fin-tzen du, eta bestez iragarkiak berdeago bihurtzen ditu. Gobernuak neurtzen dabilko da, noiz arte estutu dakioken eztarria lanetik bueltan, telebistan, politikari, enpresari, abeslari eta futbolariak lapurtu egiten diotela ikusten duen zerga-ordaintzaileari. Eta eztanda egingo du.

Energia –eta beraz, denetarik– gutxiago ekoiztu eta kontsumitu behar dugula? Ez, ez beste modu batez soilik, ez prezio jasangarrian soilik, baizik eta gutxiago. Noiz hasiko gara seriozki honi buruz hitz egiten? ●

Gure ahizpekin bakarrik



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA SINDIKALISTA

COVID-19aren eraginak eta ondorioak gure gorputz eta bizitzetan egonkortzen ari diren honetan, sindemia gainditu gabe pandemia ostea datorrela esaten digute komunikabideen bitartez. Musukoez era argigarrienean adierazten digute hau ez dela horrela. Gure bizitzek, aldiz, etengabe oihukatzen dute: batetik, gertuko enfalta gogoratuz, bestetik, osasun zein zaintza zerbitzu publikoak non dauden galdetuz, eta, zer esanik ez, lan eta bizi baldintzen kaskartzea salatuz.

Aurre-pandemia egoera nahi duenak, gaueko ordu txikietan parranda batera hurbiltzea besterik ez du. Egoera ekonomikoaren arabera, latak edo konbinatuak, biak ala biak musikaz lagunduak. Klase sozial baxukoak –parkeko latak– jazarriak, egoera hobearen dutenak –tabernako konbinatuak– baimenduak. Soberan daukaguna, polizia. Faltan, musika eta arautu gabeko dantza amaigabea.

Parranda girora itzultzea, hori bai plazera! Atzean utzi nahi ditugu aulki eta terrazak, ongi etorriak barrako poteoa, musika eta dantza. *Babosoak erre-kara* edo *matxete al matxote*, hori ez da

Klase sozial baxukoak
–parkeko latak–
jazarriak, egoera hobearen
dutenak –tabernako
konbinatuak–
baimenduak. Soberan
daukaguna, polizia.
Faltan, musika eta
arautu gabeko dantza
amaigabea

aldatu, neskak! *Kantatu, maitatu eta dantzatu ezin bada, ez da gure iraultza!*

Parrandara itzulita, *bat bateko gailernan hasi da 'perreoa' herriko taber-*

nan. Perreoa nahi dut hasi eta buka. Nire ahizpekin bakarrik. Distantzia sozialak nahi ditugunekin eta nahi ditugunean murriztuz. Gure gorputzen jabe izanik, erritmoa deseraikiz, *fuera tabu danak dantza lekuetatik.* Itzali erakuslehoak mugikor eta sare sozialetatik. Eskatu zure kanta eta gozatu gogotik.

Herrietako tabernetara iritsi da, kaleetara iritsi da; autodefentsa feministaren aldarria iritsi da. Uholde feministaren iritsi da. Dantzalekuek erlazioatzeko beste era bat iritsiko al da? Ahaldundu gaituzen, espazioa hartu, okupatu eta, bereziki, dantzatu. Askatu, gozatu, araez ahaztu, arauak apurtu.

Pandemia garaian modu batera edo bestera isolatutakoak, harremanak murriztu edota galdu dituztenak, araeak itotakoak, zaintzek lotutakoak, gorpuztetan presio estetikoak bizitakoak... *Aski da No, esan ozenki, gure ordua heldu da, No! Egin bat, denok bat, bat zuk eta bat nik.* Dantzalekuak zain ditugu, kaleak eta gauak ere bai; geureak dira! Elkar zaindu gaituzen, normaltasun berria ez baita gure bakea.

Libre maite, libre bizi, zure aukerari eutsi! ●



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA




Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



EHGAM

IRAULTZA SEXUALA BERRARMATZEN

Itzaltzear zenean, belaunaldi gazteagoi lekukoa pasa eta berpiztu egin da Ehgam, sexu askapenaren aldeko borrokan aitzindari. Gorroto diskurtsoek legitimitatea irabazi duten garaiotan, berritzeko eta anitzagoa izateko trantsizioa abiatu du mugimenduak. Izan ere, heteroarauak urteotan atea apur bat zabaldu badie ere bazter uzten ditueni, ilusio bat baino ez da, “atea gurutzatzen ez dutenak edo gurutzatu nahi ez dutenak kanpoan lagatzen segitzen du sistemak”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Nekatuta, aktiboki apenas, eta jende gaztearengana heldu ezin ikusten zuten beren burua Ehgameko kide historikoek. Jaime Mendiak 30 bat urte daramatza sexu askapenaren aldeko militantzian, eta mugimendua *off* egoeran uztea pentsatu zutela kontatu digu, “baina bat-batean Ehgam berpizteko aukera suertatu da, eta oso harro gaude”.

Amets Jordan Arrieta da lekukoa hartu duen kideetako bat: “Halako ibilbidea egin duen mugimendua ezin genuen hiltzen utzi”. Frankismoaren ostean sexu askapenari lotuta Euskal Herrian sortu zen lehenengo taldea izan zen, duela 45 urte. Durangon elkartu ziren 1976an, ondoren Ehgam izango zen hura amesteko. Hilabete batzuk geroago jaio zen, legaltasun ezatik. Urte hauetan guztietan zabaldu dituen ateak eta eratu dituen sareak nabarmendu ditu Jordanek: “Mugimenduak izen bat du, leku bat du egina, ez gara zerotik abiatzen eta erreferentzialtasuna berreskuratu nahi dugu”.

Urtetako lana jaso dute herentzian. “Kide berrienak oso kapaz dira aurrera nola egin eztabaidatu eta erabakitzeke –dio Jaime Mendiak–, guk eman diezaiekeguna gure historia da, zer eta nola egin dugun. Edozein mugimendu sozialen gisan, batzuetan indartsu aritu gara, bor-bor, eta bestetan ahulago. Frankismo osteko hastapen haietan jendea oso aktibatuta zegoen; gaur egun baino jende gehiago zegoen armairuan, bai, kolektiboaren ikusgaitasuna txikiagoa zen, baina zeudenak oso aktiboak ziren, jende politizatua, aurpegia emateko prest, ilegala zela jakin arren, polizia joko zituela jakin arren. 1990eko hamarkada ere bereziki sutsua izan zen, sexu berekoen arteko ezkontza aldarri. Eta behin hori lortuta, pixkanaka lausotzen joan zen jendearen inplikazioa. Orain, eskuin muturraren eta gorroto mezuen gorakadak eskatzen du berriz aktibatzea, belaunaldi gazteek Ehgam berpiztea, gu ez gaudelako horri erantzuteko sasoian”.

ZERGATIK ORAIN?

“Askotan iruditzen zaigu beti aurrera egiten dugula, baina emandako urratsak ez dira behin betirako lorpenak, atzera egin dezakegu, erroko aldaketa ez bada”, ohartarazi du Jordanek. Eraso homofobo eta transfoboek azken boladan duten protagonismoa hartu dugu hizpide. Batzuek diote kontzientzia maila altuagoa dagoela gaur egun eta gehiago salatzen dela, lehen ere bazirela erasoak. Beste batzuek, baina, kezka begiratzen diote egungo egoerari, eta eskolan egunerokoa dabilen jendearengandik entzundakoa nabarmendu du Jordanek: “Astakeriak esateko legitimitate handia ikusten ari dira ikastetxeetan, atzerakada nabari dute. Erne ibili behar dugula uste dut, aurretik ere hor egongo ziren pentsamolde eta jokabideak izan daitezkeelako, baina ‘nire iritzia da’ esaldiak moztortuta publikoki hainbat baieztapen egitea baimentzen denean, bide arriskutsua zabaltzen da. Hainbatek gainera badu halako sentipen bat,

Jaime Mendi
militante
historikoa
(ezkerrean) eta
lekukoa hartu
duen Amets
Jordan Arrieta.



idea intoleranteak izatea dela sistema-
ren kontra joatearen pare, ur-lasterra-
ren kontra aritzea, errebelde edo punkia
balitz bezala eskuin muturraren ideiak
zabaltzea. Hori bai arriskutsua!”.

Oro har jendeak pentsatzen duena-
ren eta errealtatearen artean dagoen
disonantzia azpimarratu du Jordan
Arrietak. Uste orokorra da berdinta-
suna lortu dela eta Euskal Herrian oso
toleranteak garela, “homofobia dela
gaya jotzen duen hori, konturatu gabe
gizarte heteroarautu batean hazi garen
heinean denok ditugula jarrera homofob-
oak. ‘Eskubideak dituzue eta onartzen
zaituztet’ pentsatzen du jendeak, baina
egunerokoan dinamika asko daude nire
sexu joeragatik kanpoan uzten nautenak
edota min handia eragiten didatenak,
zer esanik ez pertsona transexualen ka-
suan, adibidez”.

“Lehen jende asko geratzen ginen gi-
zarteak jartzen zituen mugetatik kan-
po –dio Jaime Mendiak–. Ordutik atea
pixka bat ireki eta esan digute, ‘nahi ba-
duzue gu bezalakoak izan, sartu eta guk
bezalako bizitza egin’, baina nahi edota
ezin duenak kanpoan jarraitzen du. Uste
dugu gizarte liberalizatua dela gurea, eta
nik ikusten dudana da apurtxo bat baino
ireki ez duten ate txiki bat”. Atea guru-
tzatu dutenentzat ere bada sexu askape-
naren mugimendua, barruan daudenek
maiz gauza asko sakrifikatu behar du-
telako, onartuak izateko. “Kultura hege-
monikoan sartzeak zoriontsuago egingo
gaituela sinetsi dugu, ez sartzea okerra-
go bizitzea izango dela”, dio Jordane-
k.

KOLEKTIBOAREN ERRADIOGRAFIA: SAKABANATUA ETA DESPOLITIZATUA?

Sistemak atetxoa ireki eta LGBTIQ+ ko-
munitatea bere arauetara ekartzen due-
larik, ez ote den jende bat despolitizatu,
indibidualizatu, sakabanatu. Hala senti-
tzen du Mendiak. Hiri handien idealiza-
zioaz mintzatu zaigu Jordan Arrieta, Ma-
dril, Bartzelona, Londresera *sexiliatzen*
direnez, leku horietan sexualki askea-
go eta zoriontsuago izango direlakoan,
sarri lagun eta senideak atzean utziz,
sarri euren burua enplegu prekariza-
tuetara eta alokairu garestietara kon-
denatuz. “Baina hemen egon bagaude
eta hemen sortu behar ditugu sareak”.
Eta aurrez aurreko sareez ari da, hezur-
haragi. “LGBT pertsonen ikusgaitasuna
handiago da gaur egun, baina aldi be-
rean iruditzen zait Instagram eta gisa-
koetan eraikitzen den LGBT iruditeria

oso normatiboa eta heteroarautua dela.
Interneten ematen diren harremanak
plataforma handietan ematen dira, eta
enpresa hauek, diskurtsoa despolitizatu
badezakete, despolitizatu egingo dute.
Mezu kapitalista eta neoliberal horren
aurrean, garrantzitsua da bertako dis-
kurtso bat eskaintzea, hurbila eta bizitza
errealean kokatua. Gure espazioak sortu
ahal izateko gune izan nahi du Ehgamek,
seguru sentitzeko eta gure esperientziak
partekatzeko eremu, baina ez dugu soilik
jendea artatzeko lekua izan nahi, bo-
rroka egin nahi dugu, debate politikoan
presente egon, eta eragin”.

AMETS JORDAN

“Iruditzen zait

**Instagramen-eta eraikitzen
den LGBT iruditeria oso
normatiboa dela. Horren
aurrean, garrantzitsua
da bertako diskurtso bat
eskaintzea, hurbila eta
bizitza errealean kokatua”**



Horretan, zeresan handia izango dute
belaunaldi gazteek, ezinbestean. “Gaz-
teez ari garelarik, aipatu beharko ge-
nuke batzuetan dugun ezintasuna ikus-
teko zeintzuk diren beraien beharrak,
nondik planteatzen dituzten borrokak.
Mugimendu sozial asko daude helduok
ez ditugunak ulertzen –aitortu du Jor-
danek–. Horiek guztiak katalizatzea gus-
tatuko litzaiguke Ehgamen, mugimendu
iraultzaile baten parte izan daitezen. Eta
honen berri eman diedanean jaso duda-
na da parte hartu nahi duen gazte asko
dagoela”.

GARAI NAHASIETAN, DISKURTSO ARGIA

Ehgamek hasieratik izan du xede pato-
logizatuak, estigmatizatuak, prekariza-
tuak, gutxietsiak eta baztertuak diren
sexualitate eta gorpuzak askatze bidean
jartzea, baina fokua identitate sexual
jakinetan jarri ordez, iraultza sexuala
gizarte guztiarentzako dela gogoratu
dute gure solaskideek, eta egitura bera

dela jomuga, zapalkuntzak sortzen di-
tuen egitura zishetero patriarkala: “Gure
azken helburua ez da hainbeste identi-
tate batzuei gizartean lekutxo egin eta
horiek toleratzea, biolentzia sortzen eta
jende bat beti periferian uzten jarraitu-
ko duen egitura bera zalantzan jartzea
baizik, normala sortzeko anormala ere
behar duelako sistemak”, azaldu du Jor-
danek. Zentzu horretan, eraso homofob-
o eta transfoboen aurrean mezu garbia
du Ehgamek: gakoa ez dago biktimaren
identitate sexualean, baizik eta eraso-
tzailean eta haren jokaera ahalbidetzen
duen sisteman: “Gizon heterosexual,
matxista, homofobo eta transfoboak
dira, patriarkatuak babestuta”.

Egitura kolokan jartzea dute ipar, bai-
na egunerokoan politika egin behar da,
dauden baliabide eta aukerekin espa-
zioak irabazten joan. Adibide esangu-
ratsua kontatu du Jaime Mendiak. Sexu
berekook elkarren artean ezkontzeko
esku bideak urtetan eta urtetan eskatu
zuen Ehgamek; azkenean legezatu egin
zuen Gobernuak, eta orduan, behin es-
kubidea lortuta, ezkontza kritikatzeko
hasi zen mugimendua, ez eskubidea,
baizik eta ezkontzaren kontzeptua, ez-
kontzak ez bailuke izan behar bikote
baten maitasuna edo harremana deter-
minatzeko bidea, ez lizkioke bikoteari
esku bide gehiago eman behar ezkondu-
ta egoteagatik. Egungo sisteman, ordea,
hala da, eta beraz tresna hori baliatzeko
aukera eman behar zaie bikote homo-
parentalei ere. “Diskurtsiboki egiten
dugun lanaren eta unean unean eskatu
beharrekoaren dikotomiarekin jokatu
behar dugu”.

HAU EZ DA SOILIK GAY ZURIEN ETXEA

Aurrera begirako erronkez galdetuta,
ikusgaitasuna, debate politikoan eragina
izatea, egunerokoan aktibo mantentzea
aipatu dute. Ez alferrik, izena jartzera-
koan ongi pentsatuta jarri zuten “mu-
gimendua” eta ez “elkartea”, hasieratik
garbi zutelako gauzak mugiarazi nahi zi-
tuztela, gizartea astindu. Etapa berri ho-
netan, erronka nagusiak definitzeko dau-
de oraindik, hain justu etorriko den jende
berriarekin batera egin nahi dutelako
bide-orri hori. “Trantsizio fase betean
gaude eta gure apustua da ahalik eta jen-
de gehien interpelatzea eta erakartzea,
mugimendua zabaltzea, anitzagoa izate-
a, diskurtso berriak gurera ekartzea...
Ehgam gizon gayarekin lotuko duelako
hainbatek, eta ideia horrekin apurtu nahi



HISTORIA. 1976an jaio zen Ehgam, Euskal Herriko Sexu Askapen Mugimendua. Aitzindari eta erreferente, ibilbide oparoa egin du ordutik.

dugu, kolektibo guztiak bere sentituko duen mugimendua izan nahi dugu –azaldu digu Jordanek–. Horregatik, hasieran elkartu garenok ezin genuen Ehgam zer izango den itxita aurkeztu, etortzea espero dugun aniztasun horrekin guztia-ekin joango gara definitzen. Batzen den jendeak eta batu ez arren inguruan ditugunek dituzten proposamenak, abiatzen dituzten sare eta aliantzak, martxan jarri gura dituzten espazioak... artikulatzeko gai izatea gustatuko litzaiguke, eta hori markatuko dute datozenek eta dituzten motibazioek”.

Bide berean, ez dute dudarik aliantzak funtsezkoak izango direla, azpimarratu baitute hasieratik aritu dela Ehgam bestelako herri mugimenduekin, langabezian zeuden langileekin, enpresa-batzordeekin, ikasleekin, emakumeen batzarrekin, euskaltzaleekin, auzo-elkarteekin, objektore zein intsumisioekin... “Sexu askapenarekin batera joan behar dute beste askatasunek ere; denok elkarrekin lortu behar dugu gizarte askeagoa, bakoitzak indarra arlo jakin batean egingo duen arren”, aldarrikatu du Mendiak.

INSTITUZIOEKIN, KONTRAESANAK

Zein punturaino izan dezakegu konfiantza administrazioarengan, eraldaketaz ari garelarik? Jordan Arrietak dio legeak tresna inportantea direla, baina erroko aldaketak lortzeko administrazioetik at egin behar dutela lan, gizarteak berak eraldaketa aldarrikatu eta gero administrazioa horretara behartzeko.

Jaime Mendiak esperientzia handia du administrazioarekiko hartu-emanean, haiekin batera askotan aritu baita Ehgam, lege bidegabeak kentzeko, LGBT jendearen kartzeletako egoeraz aritzeko, hiesa sortu zenean egoera gestio-natzeko... Eta hala behar duela uste du, baina hala ere tartean sartzen direnean dena izorratzen dutela politikariek, haien eremura eramaten zaituztela, euren helburuetarako erabili... Duela gutxiko adibidea jarri digu: Emakunderen gisako zerbitzua eskatu zion Ehgamek Eusko Jaurlaritzari, “eta emaitza izan da Berdindu! zerbitzua, plataforma guztiz ekonomizatu eta enpresarializatu”.

KOSA

Koronabirus Osteko Sexu Askapena du izena Ehgamek abiatutako trantsizio prozesuak. Batetik, jende berria erakarri eta denen artean Ehgamen etorkizuna gogoetatzeko hastea da asmoa, azaroaren



6an Bilboko Karmela espazio autogestionatuan antolatutako ekitaldian. Bestetik, bai egun horretan bertan Karmelan, bai aurretik hainbat herritan, mahai-inguru eta elkarrizketa kolektiboak antolatu dituzte, gai eta hausnarketa ugari plazaratu asmoz: erasoan aurrean nola jokatu, LGBT+ borroketan euskarak duen lekua, genero disidentziak... izango dituzte hizpide, besteak beste.

JAIME MENDIA

“Sexu askapenarekin batera joan behar dute beste askatasunek ere; denok elkarrekin lortu behar dugu gizarte askeagoa, bakoitzak indarra arlo jakin batean egin arren”



“Familiak eta hazkuntzak zisheteroarautik at” eztabaidan, adibidez, Nel Santacruzek hartuko du parte. Kontatu digunez, familiaz dugun iruditeria transformatzea eta zabaltzea izango da mahai-inguruko gako handi bat, haur bat izateko eta berau hazteko legiti-
 tatea bikote zisheterosexualek baitute gure gizartean, “eta marko horretatik ateratzen garenok traba sozialak, juridikoak eta instituzionalak aurkitzen ditugu”. Haur batez erditu den aita transexuala da Santacruz, eta familia eredu ugarietz gain, umeen hazkuntzaz ere mintzatuko da, heteroarauan ez hezteko praktika eta moduez. “Nire kasuan, haurrari ez diot generorik ezarri nahi izan, berak esploratu dezan generoa, eta ez dadin izan jaiotzean dituen genitalen arabera inposatua (arropan, jolasetan, baloreetan...)”.

“Kultura ez heteroarautua” mahai-inguruan berriz, Danele Sarriugarte idazlea arituko da, beste hainbatekin batera. Azaldu digunez, aipatuko dituzten gaien artean jorratuko dute ikusgaitasuna, LGBT sortzaileena, baina baita kultur ekoizpenetan komunitateak duen ikusgaitasun eta errepresentazioa ere. Hainbat galdera ere badituzte mahai gainean: ba al dago –eta nahi al dugu– LGBT komunitateari lotutako azpikultura bat? Kultura nagusiak zenbateraino baliatzen ditu LGBT kulturaren sortutako korranteak –eta nola bizi dugu hori–? Komunitateari lotutako zein erreferente kultural ditugu? Zein lotura –historiko izan– du mugimenduetan feminismoarekin?...

Dena prest du Ehgamek, iraultza sexuala egiteko bide-orria berrirudikatzen, birpentsatzen, berrarmatzen eta berramesten hasteko. ●

EUSKAL HERRIA NAZIEN BABESLEKU

Bormann kriminalaren misterioa

Bigarren Mundu Gerra ostean ihes egindako buruzagi naziak gurean ere babesa aurkitu zutela dioten gero eta datu gehiago dugu. Otto Skorzeny SS-etako komandante ezagunak Markina-Xemeinen Wilhelm Mallet tratulariarekin izandako negozioen berri eman genuen pasa den abenduan. Baina Malleten etxe gotortuak misterio asko gordetzen du, eta, izan ote zitekeen Martin Bormann bertan ezkutatzea? Auskalo. Baina Adolf Hitlerren gizon gertukoaren heriotzaz dauden teoria kuriosoenek ere balio digute, gerra kriminal haiek egindakoa gogoratzen jarraitzeko.

JON ARRIZABALAGA GONZALEZ

Markina-Xemeinen bizi zen bikote alemaniar baten inguruko informazio esanguratsua argitaratu genuen astekari honetan iazko abenduan, *Naziengoa Euskal Herrian* erreportajearen. Wilhelm Mallet eta Ruth Adamsen etxe handian Bigarren Mundu Gerra ostean ihesean ibilitako –eta frankismo garaiko Euskal Herrian babesa aurkituriko– naziak elkartzan ziren, tartean, Otto Skorzeny SS alderdi naziko komandantea eta ingeniaria. Gerra garaian misio bereziak egindakoa, Mar-

kina-Xemeingo Esperanza y Cía arma lantegiko jabeekin negoziotan aritu zen Skorzeny, Malletekin batera.

Bekobenta izenez ezagutzen den tokian zegoen etxe hartan gordetzen zuten diskrezioaren eta klandestinitatearen ondorioz, informazioak jarraitzen du oso urria izaten, baina gaia azalera aterra denetik berriz itzuli dira iraganeko alemanen kontu zaharrak Markina-Xemeingo kaleetara. Horrek, duela urte

batzuk jaso genuen beste testigantza harrigarri baten berri ematera garamatza orain.

NOR ZEN MALLETEN GIDARIA?

Ugari dira Mallet eta Adamsen etxean, bikote alemaniarraz gain, III. Reichen kargu garrantzitsuak izan zituzten naziak bizi zirela susmatzen edo ziurtatzen duten herritarrak. Eta ez gara soilik Otto Skorzeny ari.



Martin Bormann izan zen Alemaniako lege antisemiten sinatzaile nagusiena. Bere ihesaren misterioa errealitate ukaezin batek elikatu zuen: gerraostean milaka nazik munduko hainbat txokotan babesa aurkitu zuten, baita Euskal Herrian ere.



1950eko hamarkadan Martin Bormann genozida munduko toki guztietan ikusten zuten herritarrek. Eskuinean herritar batek helarazitako argazkian, haren antza izan dezakeen gizon misteriotsua ikus daiteke Markina-Xemeingo Wilhelm Malleten etxean. Ondoa, Bormannen burezurra Berlinen aurkitu zutenean. Ondoko orrialdean Mallet ageri da orduko ustezko neskalagunarekin.

Emakume baten testigantza gakoak izan zaigu lorratz hori jarraitzeko. Gaur egun alarguna –ez dugu hemen bere izenik emango–, senarra mekanikoa zen eta alemaniarrek askotan deitu zioten haien etxera, Malletek zuen Mercedes-Benz auto beltz dotore eta ikusgarria konpondu zezan. Han ikusitakoaz kontatzen zuena ongi oroitzen du emakumeak oraindik.

Mekanikariak autoa konpondu bitartean Malletekin berarekin harremana izaten zuen, baina baita etxeko langileekin ere –gutxienez hamabi lagun aritzen ziren zerbitzuan, sukaldean...–. Honen arabera, langileen artean bazen bat, gidaria, Malletekin erlazio berezia zuena. Torloju eta pieza zaharrak aldatzen zituen bitartean ohartu zen ustez langile itxura zuen gizon hura norbait garrantzitsua zela bertan bizi zirenen hierarkiaren barruan. Malletek begirune handiz hartzen zuen beti: ez zen normala etxeko jaunak langileari keinu gehiago egitea, alderantziz beharrean... Mekanikariak ezezagun misteriotsuari aurpegira begiratzen zionean edo albotik igarotzen zenean, gizonak burua makurtu edo beste alderantz begiratzen zuen, ezkutatu nahi balu bezala.

Lanaren ostean etxera itzultzen zenean emazteari urduri kontatzen zion

pentzatzeko zuena eta berak ziur bertan ikusitakoa: zer eta etxe hartan Martin Bormann bizi zela. Hain zegoen segurua, ezen gaur egun ere, gure lekukoak argi baitio senarra bizirik balu gauza bera ziurtatzen jarraituko zuela.

BORMANN, HITLERREN ALBOKOA

Bormann hierarkia naziko pertsonaia garrantzitsuenetarikoa zen, Reicheko kantzilertzako buruzagia eta Hitlerren idazkari pertsonala, hau da *Führer*-aren alboko gizona. Alemaniako Gobernuak izendapen eta barne kontu guztiak kontrolatzera iritsi zen, eta lege antisemiten sinatzaile politikoa nagusia izan zen. Gerra ostean, Nurembergen *in absentia* –bera ez zegoela– epaitu zutenean, fiskaltzak esan zuen juduen eta poloniarren exterminioa bilatzen zuten “Azken Soluzioaren” planifikazioan parte hartu zuela bete-betean, eta urkaturik hiltzera kondenatu zuten, nahiz eta zigor hori ezin betearazi.

1945eko apirilaren 30ean, Berlin sobietarren esku erori baino egun batzuk lehenago, dirudienek Hitlerren suizidioaren lekuko izan zen Bormann, kantzilertza azpian zegoen bunkerrean gertatutakoa guztiz argi ez dagoen arren –berak atera ei zuen besotan Eva Braun-

nen hilotza logelatik, Hitlerrekin batera hilda–. Hortik gutxira, bunkerra utzi eta hiritik ihes egiten saiatu zen. Berarekin batera joan zirenek esan zuten ez zuela lortu Berlindik bizirik irtetea. Hitleriar Gazterien buru Artur Axmannen lekukotza da irmo eta garrantzitsua: honen arabera, agintari nazia maiatzaren 2ko gauean hil zen, Berlingo Lehrter geltokira zeraman trenbide ondoan, artilleria sobietarraren ondorioz. Aliatuek egindako galdeketa eta epaiketetan ere Bormannen inguruko soldadu gehienek esan zuten hilda zegoela. Zalantzarik ez beraz.

Hala eta guztiz ere, OSS-CIA, Mosad eta beste hainbat inteligentzia zerbitzuek urte asko igaro zuten genozidaren arrastoa jarraitu nahian. Zergatik? Informazioa eskasa zen eta hainbat nazi ehiztarik zioten posible zela Bormannek Berlindik ihes egin izana.

1972KO HEZURRAK

1950eko hamarkadan Martin Bormannen izena mundu osoan barrena zabalduta zen. Jende askok deitzen zuen Poliziara, edo inteligentzia zerbitzuekin harremanetan jartze zen, hura ikusi zutela esanez. Argentinan, Paraguan, Brasilen, Mexikon, Egipton, Espainian... Bormann



zehaztutako bere heriotzaren koka-penarekin. Hezurrek ere Bormannen altuera eta ezaugarri berak zituzten. Aurpegiaren berreraikuntza egin ostean baieztatu zen bera zela, eta hildakotzat eman zuten hainbeste urtetan bizirik bilatzen ibili ziren nazi kriminala. Orduan?

Bormannen historia hor amaitzen da, baina misterioa ez. 1988an bere burezurra berriz ikertu zutenean, alemaniar perituak jabetu ziren lur koloretsu batez

1972an Berlingen
hezur batzuk
azaldu ostean,
Bormannenak zirela
argitu zen. Historia
hor amaitzen da,
baina misterioa ez

ikusi zutela baieztatu zutenak ez ziren gutxi izan. Ez da harrigarria sukar hori, munduko pertsonarik bilatuenetarikoa izan baitzen 1970eko hamarkadaren hasiera arte. Irratian eta aldizkarietan programa eta artikulu sentsazionalistek bere balizko bizilekuen berri ematen zuten behin eta berriz. Baina inoiz ez zuten bizirik aurkitu.

1972an, Berlingo eraikuntza gune batean hezur batzuk topatu eta identifikatu ostean, Bormannenak zirela argitu zuten. Arrastoak agertu ziren tokiak bat egiten zuten gerra osteko galdeketeran

estalita zegoela, eta hori nonbait jasota utzi behar zela esan zuten. Areago, dirudenez lur mota hori ezin zen Berlingen aurkitu, soilik Paraguaiako zonalde batean baizik. Horregatik, hipotesi bitxieta bat izan da Bormann Hego Amerikan eta Espainia frankistan ibili zela ezkutuan, eta bera hil ostean eraman zituztela arrastoak bueltan Berlinera, kasua behingoz amaitutzat emateko.

ARGAZKIKO EZEZAGUNA

Hipotesiak hipotesi, Markina-Xemeingo alemanekin harremana izan zuten

beste solaskide batzuekin ere hitz egin dugu gehiago jakin nahian. Eta horietako batek argazki zahar batzuk erakutsi dizkigunean, zalantzaren galdera ikurra berriz agertu zaigu, jolaskor, kontu honetan guztian: argazki batean Martin Bormannen antza duen gizon bat ageri da, begitarte eta aurpegiko bereizgarri antzekoak dituen. Argazkia alemaniarren etxeko atzeko partean dago aterata, 1955. eta 1965. urteen artean, eta solaskidearen arabera, gizon ezezagun hori Wilhelm Malleten gidaria zen, madrildarra ustez; zehazki, alemaniar enpresariak 1950ean Markina-Xemeinen kokatu zirenez geroztik, hirugarren txoferra zen hura.

Txaletean, zaintza txakurrek eta hiru metroko harrizko harresiak diskrezio osoz mugitzeko aukera ematen zien hango jabeai eta beren lagun "bereziei". Eremua 27.000 metro koadrokoa zen eta inguratzen zuen harrizko hormak gainean kristal apurtuak zituen porlanetan itsatsita. 1965ean, Mallet hil zenean, bere orduko ustezko bikotekideak -Ruth Adams urte batzuk lehenago hil zen istripu arraro baten ondorioz-, berehala dokumentu mordoa erre zuten etxearen kanpoaldean. Langileetako batek oroitzen du momentu hura: izugarrizko su garrak ikusi zituen, eta barruan artxibo ugari ari zen erretzen.

Nor ote zen Malleten gidaria? Kasualitatea baino ez da izango, baina behin misterioaren eremuan jolasean hasita, agian Martin Bormann ez zen Berlingen hil... zeinek daki. Nolanahi ere, istorio honek naziek Euskal Herrian izan zuten benetako presentziaren eta Markina-Xemeinen oraindik badirauren Bekobentako alemanen kondaira beltzaren inguruan ikertzen jarraitzeko bide ematen digu. ●



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa 2021



Eneko Fernandez Maritxalar, Erika Lagoma Pombar, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Endika Legarra Nuin eta Oier Lakuntza Irigoien

Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi Goñi

Finalaurrekoak

ALTSASU
Azaroak 1, astelehena
17:30ean, lortia Kulturgunean



Laguntzailea



D eredu naturala

Etxetik euskara dakarten haurrak ikasgela berean ala sakabanatuta?

Uda atarian gogoeta gisakoa plazaratu zuen sarean Txerra Rodriguez hizkuntza aholkulariak, hala ARGIAko 'Garagoikoa' blogean nola zuzen.eus gunean. Zioenez, "azken aldion, berriro aipagai izaten ari da D eredu naturala izenekoa". Batetik Rodriguezen gogoetak eta bestetik irakasle, guraso eta ikasleen bizipenak jaso ditugu artikulu honetan.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Txerra Rodriguezek gogoeta abiarazi baino egun batzuk lehenago, hala idatzi zuen Mixel Elorza Exeak zuzen.eus atarian: "Datorren ikasturtean semea Gasteizko eskola publiko bateko 2 urteko gelan hasiko da. Matrikulazioa igarota, taldekatzeak egin berri dira eta hamar haur euskaldunak hiru gelatan sakabanatuko dituztela jakin dugu". Argudioa, ume euskaldunak bantzeak gelak orekatzen dituela. Balizko oreka horrek "haurren hizkuntza eskubideak urratzen ditu", zioen Elorzak.

Honelaxe definitzen du Rodriguezek D eredu natural izenekoa: "Bi berbetan azaltzeko, ikastetxe batean etxetik euskara dakarten umeak klase berean jartzeaz ari da D eredu natural hau". Eta horixe hartuko dugu kontuan gai azalduz.

Rodriguezek zioen D eredu naturalean bazirela zailtasun metodologikoak, pedagogiari lotutakoak, eta bai ikertu gabeko aferak ere. Zailtasunei dagokienez, adibidez, muga non jarri iruditzen zitzaien korapilo nagusia. "Hau da, zeintzuk dira eskola horietara joan daitezkeenak eta joan ez daitezkeenak? Non jarri muga? Guraso(ar)en hizkuntza gaitasuna da muga? Guraso(ar)en hizkuntza praktika? Haurren ulermen maila?". Galderak bai, erantzunik ez zuen Rodriguezek; horien artean irizpiderik egokiena zein den ez zekien. Hori ez

ezik, galdera horien erantzunak jasotzeko metodologia bera ere ezin erabakirik zebilen. Nola jaso datuak? "Guraso(ar)ei galdetuta? Behaketa bidez jaso? Azterketa bidez?"...

Sen onez, bestalde, D talde naturaleko osatzeak dakarren zailtasun metodologikorik ere aipagai zerabilen Txerra Rodriguezek: "Zer gertatzen da ikastetxe batean D eredu naturaleko [balizko] kideek taldea osatzen ez badute? Eman dezagun, hamabost ume daudela, baina ratioa 25ekoa dela. Hortaz, D eredu naturaleko hamabost horiek batu, baina euren klasean beste hamar ume sartu beharko lirake. Horrek ez al du erabat lausotzen D eredu naturala?", zioen hizkuntza aholkulariak, eta, azkenik, arestian aipatu zailtasunez gain, pedagogiari dagozkionei zeritzen Rodriguezek garrantzitsuen: "D eredu naturalean eta ohiko D ereduaren eskolak berdin eman behar dira? Hizkuntzaren irakaskuntza eta glotodidaktika berdina izan beharko litzateke batean eta bestean? Zer ezberdintasun egon beharko lirake? Zeri eman behar zaio garrantzia D eredu naturalean? Eta zeri ohiko D ereduaren?"

Galdera horien erantzun bila abiatu gara, esperientzia zehatz batzuen harrian. Gasteizen, Abendaño Ikastolara jo dugu. Irakasle, guraso eta ikasleen ahotzak ditugu, denak ere D eredu naturalean ganean mintzo.

IRAKASLEA

Igone Orbea irakasle zaildua da Abendaño Ikastolako Haur Hezkuntzan. Bi seme ditu, bata 28 urtekoa, bestea 23koa, eta haiek eskola hastearekin batera lotu du ikastolako D talde naturalaren sortze garaia. "Seme nagusia matrikulatu ondoko urtean ezarri zuten hemen D mantendu edo naturala, baina, hemen baino lehen, Arantzabelan [ikas-tolan] abiarazi zuten gurasoek. Indar handia egin eta Administrazioa presionatu zuten. Gero, Ikasbidea, Toki Eder eta Abendaño bertan ezarri zuten D naturala". Hastapenean, beraz, garai bateko guraso euskaldunen ekimena izan zen. Helburua zuten beren seme-alabak ikastolan euskaraz mintzatzea, etxetik zekarten euskara are gehiago indartzea Gasteizko giro zeharo gaztelaniazkoan.

Lehenik asmoa gurasoek abiarazi arren, Orbea esan digu D naturala Hezkuntza ordezkarietatik heldu zela Abendaño Ikastolara. "Hiru lerroko ikastetxea izan gaituzue beti, baina urte hartan, duela 27 urte ari naiz, Administrazioak ikastolan laugarren lerroa eskaintzea erabaki zuen, D naturalekoa". Abendaño Ikastolaren Haur Hezkuntza eraikina txikia izan da beti eta Igone Orbeak go-goan du egokitzapenak egin behar izan zituztela, behar hainbat gela izateko.

D naturala eskainita ere, ordea, taldea osatu behar zen: etxetik euskara zeka-



rreren haur-taldea biltzea, lantegi erraza ere ez Gasteizen, ez han-hemengo ikastola askotan ere. “Taldea osatzea ez zen erraza, eta osatuta ere, D naturala antolatzeak hainbat gorabehera eta gatazka ekarri zituen: garraioa zela, aurrematrikula egitea zela, haurren euskara zela eta ez zela... Eskari handia zuen Abendano Ikastolak, ez zen erraz ere hemen sartzea eta, haurra D naturalean matriculatzeak, adibidez, puntu bat gehiago balio zuen”. Ez zen pikardia gabeziarik izan ohi, zenbait gurasok, haurra Abendano Ikastolara sartu beste helbururik gabe, D naturalean ematen baitzuten izena, “nahiz eta beren umeak euskararik ez ekarri”. Orbea oroitzen denez, izan ziren ikastolaren kontrako kekek, izan ziren Administrazioaren aurreko salaketak. Hezkuntza ordezkartzaren kontra bihurtu zen auzia eta, ikastolak berriz, nekez kudeatu zezakeen egoera bihurria.

Haur euskalduna D naturalean matriculatzeak esan nahi zuen, besteak beste, ikaslea gelako giro euskarazkoan eskolatuko zela, patio, jantoki eta gainerako eremuetako giroa gorabehera. Hala ere, bazen besterik: “Bai, zeren eta haur

“

Etxetik euskalduna den haurra altxorra da, baina irakasleak asmatu behar du horri zukurik handiena ateratzen”

Igone Orbea
Irakaslea

euskalduna altxorra baitzen eta D ohi-koan, gainerako haurrak euskalduntzen lagundu baitzezakeen”. Bere haragian bizitu zuen egoera Igone Orbeak, bigarren semea eskolatzeko garaia heldu zitzaionean, ordurako D naturala ikastolan abiarazia zela. “Nire kideei esan nien: ‘Sar ezazue gure seme bigarrena nahi duzuen taldean. D naturalean ondo egongo da, eta D ohi-koan sartuta, gelako gainerakoak euskalduntzen lagundu lezake. Bestalde, gure familia Soraluzetik Gasteiza etorri zenean, gu ume ‘arra-roak’ ginen hemen, euskaraz egiten ge-

nuen, *los hijos de la vasca* ginen –euskaldunaren seme-alabak–. Gasteizko giro erdaldunean hazi gara, baina ez dugu euskararik galdu’. Horrelakoak izaten ziren gure kezkak eta eztabaidak”. Orbearen seme nagusiak D ohi-koan egin zituen ikasketak; D naturalean, aldiz, bigarrenak, eta, batak zein besteak euskaraz burutu dituzte ikasketak, Haur Hezkuntzatik unibertsitateko graduertaraino.

Zerutik jakina da irakasleari errazago zaiola D ereduan ere haur euskaldun-kin lan egitea, gaztelania besterik ez daitenenekin baino. Besterik da batzuekin eta besteekin metodologia bera baliatu behar den. Haatik, arestian aurreratu duenez, Orbeak badaki haur euskalduna erdaldunen artean eskolatzea, D ohi-koan, baliagarria izan daitekeela. “Horrelako haur bat altxorra da, baina irakasleak asmatu behar du horri zukurik handiena ateratzen, interakzioak sortzen, jolasean eta gainerakoetan”. Euskaraz ikasten ari direnek euskaldunari entzutea aberasgarria da guztiz, irakasle honen irudiko.

Dakigunez, inoiz ez zen talde natural, edo mantendu, deitu hauen segimendu

zehatzik egin, ez neurketarik, ez bestelakorik, ohiko iritzi-trukeak eta Jaur-laritzaren Hezkuntza Sailak aginduak dituen diagnostiko egite eta ebaluazio nagusiak besterik.

Arazorik edo gatazkarik sortu ohi zenean, Hezkuntza ordezkariak ez zuen erantzunik. “D naturala ez zela legala esaten ziguten, geu arduratzeke. Guk esaten genien, aldiz, berek onartu zutela talde naturala, berengandik etorri zitzaigula”.

Oraingo egunean, D naturaleko azken taldea dute Abendaño Ikastolan. Lehen Hezkuntzako 3. maila hasi du taldeak ikasturte honetan. D naturalekoak ez ziren gurasoen zenbait kexa, metodologia eraberritzeak, Hezkuntza ordezkariaren inplikazio eza... “Askotan kuestionatu da D naturala ikastolan. Kopurua osatzeko zailtasunak izaten ziren; etxetik euskara zekartela esan arren, batzuetan ez zen egia; migratzaileen seme-alabak talde horretatik kanpora gelditzen ziren; taldeen arteko maila sozio-kulturalak ere ezberdinak ziren... ‘Banaketa hau ez da posible’, esaten genuen irakasleok”. Metodologia zaharberitzeak eman zion errematea D naturalari. “Zirkulazio librea abiarazi genuen, gelak ireki genituen, aukera libreko guneak, proiektuak... gauza

asko”. Eta, horrela, D naturala eskaintzeari utzi zion Abendaño Ikastolak duela dozena erdi bat urte eta, esan dugunez, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan hasi dira iragan irailan D natural azkenak.

GURASOAK

Abendaño Ikastolan eskolatu zuten haurra Maria Carmen Cuestak eta senarrak. Gogoan dute nola jakin zuten D eredu naturalaren berri. “2 urte zituela, gure alabak Gasteizko Udalaren haur eskolan egin zuen ikasturtea, San Martin auzoan. Euskarazko ereduaren zen. Ikastolara hasi behar zuen garaian, haur eskola hartako guraso batzuk esaten hasi ziren auzoko Abendaño Ikastolak D eredu naturala zuela. Guk ez genekien zer esan nahi zuen horrek, baina laster azaldu ziguten: etxetik euskara zekarten haurrak elkarrekin biltzea”. Bi gurasook ongi iritzi zioten, us-tez horrek beren alabaren euskara mailari eusten lagunduko ziola, Gasteizko gizarte giro gaztelaniazkoan ere.

Haatik, D naturalean izena ematea ez zen aski. Bazen bestelako betekizunik: “Taldea osatu behar genuen; alegia, gutxieneko kopurua zen derrigorrezkoa”. Ez dira kopuruaz zehatz oroitzen. “21 inguru, beharbada. Eta ez ginen

“

Gela barruan euskaraz hitz egin behar zen, baina patiora irten eta gaztelaniaz hitz egiten zen gehiena”

Maria E. Cuesta

D eredu naturaleko ikaslea

osatzen. Hori seguru dakigu. Hamalau, guztiz seguru ginen, bizpahiru seguru samar... eta, hala ere, besteren batzuk behar genituen”. Aurrematrikula egin eta onartuak izan ziren haurren gurasoen batzarra egin zuten, ikastolak berriaz deituta. “Ikastolako zuzendari eta irakasleek ikastetxeak D eredu naturala zertan zen azaldu zuten, baina gela eratu ahal izateko gutxieneko kopurua osatu behar genuela esan ziguten. Euskaldunak ez ziren zenbait guraso ere haurra D naturalean izena ematera gonbidatu genituen”, gogoan dutenez.

Eztabaida sarean

Txerra Rodriguezek ARGIAko *Garaigoikoa* blogean 'D eredu naturala' artikulua argitaratu zuen ekainean. Ondoren, zuzen.eus-en egin zuen publiko eta hainbat jende gogoeta egiteko baliatu zuen Rodriguezen artikulua:

Txerra: “Orain arte hainbat herritan egon da D eredu natural hau. Baina ez da izan ikertua”.

Julen: “Uste dut lehen pausoa izan beharko litzatekeela ume euskaldunak ez banatzea, nahiz eta familia erdaldunetako umeekin nahastuta egon ikasgelan”.

Jone: “D eredu naturalari abantailak baino ez dizkiot ikusten. Hasteko eta behin, haur euskaldunen norbere buruarekiko estimuari lotutakoak, eta hortik aurrera, euskararen erabilerari lotutakoak, noski”.

Julen: “D eredu naturalak inplantatzearen aldekoa naiz, erabat. Hauek sortu ezean euskara hil egingo dela uste dut. Euskarak babestoki hori behar du, giza-kiok arnasa behar dugun moduan”.

Txerra [Julen]: “D eredu naturalaren aldekoa zaitugu, ados, baina zer gertatzen da eskolaz kanpo? Uste dut indar gehiegi jartzen dugula irakaskuntzan eta hortik kanpora mundu zabal (eta askotan erabat erdaldun) bat dugu eta horri ez diogu kasu larregirik egiten”.

Jone: “Ikastetxe askotan (gehiene-tan?), haur etxetik euskaldunak erdaldunetz jositako geletan banatzen dituzte, gela horietan euskararen erabilera sustatzeko aitzakiarekin (...) Baina euskararen erabilera piztu ez, haur euskaldun horiek azkar batean ikasten dute euskara etxean utzi eta eskolako nahiz kaleko harremanetan espainieraz edo frantsesez jardutea dela legea”.

Maite: “Nik uste, euskara etxetik dakarten umeak biltze soila, berez dela onuragarria hizkuntzaren jabetzaren eta lanketaren ikuspuntutik. (...) Baina beti izango da hobea D eredu natural kaxkarra, D eredu erdaltzale ‘bikaina’ baino”.

A: “Transmisio osoagoa, trinkoagoa, sendoagoa... hitz batez egiazkoagoa bultzatze lezake D eredu naturalak, gurasoak kitzika ditzake bere haurrekin beti-beti euskaraz aritzera”.

Julen: “Haur euskaldunak banatu eta haur guztiak euskaldun aterako direlako falaziapean, irakasleak irabazi ezin-neko gudu batean murgildurik daude”.

Txerra: “Orain arte egin diren ikerketa guztietan agertzen da –begiratu Lasarte-Oriako gazteei buruzkoak, adibidez– etxetik euskara dakartenak eta D ereduaren matrikulatuta daudenak –“naturala” ez izan arren– euskararen erabilera (eta ezagutza) handiari eusten diotela, nerabezaroan eta gaztaroan (eta helduaroan)”.

Txerra: “Eztabaida ireki gura izan dut, batetik, ez dauzkadalako zuek dituzuen ziurtasunak. Ez ditut, eta hori hala da. Ez nago umeak batzearen alde, ez nago umeak banatzearen alde. Ez dut horren inguruko ziurtasunik”.

Guraso biok gogoan dute bilkura hura. “Dena gaztelaniaz egin zen. Horrek harritu gintuen, ikastola baitzen, eta uste genuen haurrak ikastolara zeramatzen guraso guztiak euskararen borondatea izango zutela, baina ez, hurrek euskaraz ikastea besterik ez zuten nahi. Euskaraz hitz egin, ez hitz egin, berdinez zitezien, edo ez zuten hurrek euskaraz hitz egitea kontsideratzen ere. Eta beste gauza bat, harrigarria, hantxe hasi zen guraso bat, sekulako diskurtsoan, esanez ikasturtean zehar haurrik heltzen bazen –migratzaileez ari zen, jakina–, D naturaleko taldea ezin zela itxi, hara ere sarrera izan behar zutela migratzaileek, gainerako taldeak ikaslez ez betetzeko. Hizkuntza lehenesterik ez zegoela, edo halakoren bat”. Ez zuten guraso haren berriketa ulertu, baina, ondoko urteetan, hiruzpalau haur ere sartu zituzten D naturaleko gelan. “Bata, sahararra zen, baina haren familia lehenago Artean egona zen, eta garbi-garbi hitz egiten zuen euskaraz, bizkaierazko hitz batzuekin!”. Gero, oroitzen denez, beste bi haur ere sartu zituzten D naturaleko gelan, baina ez zen batere eragozpenik izan.

Etxetik euskara ekarriatik ere, edo gurasoek hori esanagatik ere, askotan are gehiago zen gurasoen nahikundea, errealitatea baino. D naturaleko gelako haurren euskara erabilera izan zen frogatua, Cuestak esan digunez.

IKASLEAK

Maria E. Cuestak 18 urte bete, eta unibertsitatera hasi da aurten. Abendaño Ikastolako D naturalean ikasia, bere bizi-eskarmentuaren berri eman digu. “Etxean euskaraz hitz egiten zidaten gurasoek. Hasieran, biek. Gero, ama gaztelaniaz hasi zitzaidan hitz egiten, eta ni ere gaztelaniaz hasi nintzen harekin. Aitaita-amamak, berriz, ez ziren euskal-



dunak, eta haiekin ere denbora pasatzen nuen”. Eta, hain zuzen, aitaita-amamen etxe aurrean zen Abendaño Ikastola. Hantxe matrikulatu zen eta egin zituen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza osoak Maria E. Cuestak, D naturalean.

Ageri denez, 12 urte bitarteko ikaslearen pertzepzioak ditu. Gelako euskara giroaz galdetu eta... “Nik hiruzpalaurekin egiten nuen euskaraz: Maddi, Aimara, Haizea... Beste inorekin ez. Gaztelaniaz hitz egiten zidaten eta gaztelaniaz erantzuten nien. Gela barruan euskaraz hitz egin behar zen, baina patiora jolaserira irten eta gaztelaniaz hitz egiten zen gehiena. Mutil denek gaztelaniaz hitz egiten zuten”. Haien euskara ezagutza da koska, beharbada. “Batzuek guraso biak euskaldunak zituzten, baina gehienek ez; batzuen kasuan, gurasoetako batek

bakarrik zekien euskaraz, eta beste kasu batzuetan, batek ere ez”. Haatik, D naturalean beren seme edota alaba. “Nire lehengusuak esaten duena da: ‘Denak euskaraz ikasten ari ziren, eta, hortaz, suposatzen da euskaraz badakitela, baina nik inoiz ez diet euskaraz ezer esaten aditu’. Nire lehengusuak ikasbidean ikasi zuen”, hau da, D naturala eskaintzen zuten beste ikastola bat hura ere.

Oraingo egunean, euskaraz hasi ditu unibertsitate ikasketak Maria E. Cuestak, eta euskaraz hasi dituzte euskaraz jarduten zuten Maddik, Aimarak, Haizeak, eta haien modura, baita gela “natural” hartako beste zenbait ikasleek ere, nahiz etxetik euskaldunak ez izan.

D naturala aipagai den honetan, go-goan hartzeko eskarmentu eta jardun ez idatziak dira. ●



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari
Nafarroa hego eta erdialdean



errigora

errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

**Herriak
egiten du
herria**



aek

ikastolenelkartea

Sortzen

DONOSTIAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Funts putreek etxerik gabe utziko dituzte Benta Berri auzoko bizilagunak

Donostian, Benta Berri auzoko babes ofizialeko etxebizitzak enpresa pribatuen esku egon dira eraiki aurretik, eta maizterrek haien etxeak erosteko duten ezintasunaren aurrean, politikariek ezin izan dute ezer egin, eskumenak hasieratik galdu baitzituzten. Halako arazoen aurrean Euskal Herrian ez da ohikoa erakunde publikoek etxebizitza horiek erostea, baina Berlinen (Alemania) erakutsi dute enpresa pribatuen eta funts putreen espekulazioari aurre egiteko irtenbideak badirela.

 IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA

Benta Berriko babes ofizialeko etxebizitzetako bizilagunei zazpi babes-urte besterik ez zaizkie geratzen, eta 23 urte inguru igaro dira, maizterren esanetan, Eusko Jaurlaritzak engainatu zituenetik. 1994. urtera egin behar dugu bidaia arazoaren muinera joateko.

Urte hartan, Eusko Jaurlaritzak bere Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu zituen Benta Berrin babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze oinarri legalak eta UTE Benta Berri enpresen elkargoari esleitu zizkion 75 urtez lursailaren eskubideak. Enpresa hau arduratu zen etxebizitzaren eraikuntzaz eta ondorengo kudeaketaz.

Nahiz eta lursailaren eskubideek 75 urteko luzapena izan, etxebizitzaren ba-

bes ofizial izaerak 30 urteko luzera du; hau da, 2028. urtean jada ez dira babes ofizialeko etxebizitzak izango eta une horretan etxebizitzaren jabetza duen enpresak nahi duen preziotan saldu edo alokatu ahal izango ditu.

Lursailaren eskubideak UTE Benta Berriri esleitu ostean, promozio berri honen propaganda zabaltzen hasi ziren Donostian eta inguruko herrietan. Aldizkari ofizialeko oinarri legeletan eta propaganda orrietan garbi zioen etxeen giltzak eman eta hamabi urtera maizterrek etxebizitza erosteko aukera izango zutela. Aukera horrek familia eta banako asko gerturatu zituen, aukera bikaina baitzen: hamabi urtez alokairu sozialean egon eta gero etxea erosi.

1998. urtean hasi ziren etxebizitzaren zozketekin eta Alokairu-Benta Berri elkartearen kideek adierazi dutenaren arabera, kontratua sinatzerakoan izan zuten lehen arazoa. Izan ere, publizitatean eta oinarri legeletan adierazita zegoen erosketa aukera ez zegoen kontratuan.

Kontratutik klausula hori kendu izanak asko aldatu zituen gauzak; izan ere, sinatzaileek ez zuten etorkizunean etxebizitza erosteko aukerarik izango. Alex Iturrate Alokairuko kideak “atzo izan balitz bezala” gogoratzen du garai hura: “Kontratuan erosketa klausula falta zela esatera joan ginen bulegora eta arrazoia eman beharrean gu estutzen hasi ziren, sinatu ezean aukera galduko genuela azpimarratuz. Presio horrek jendea atzera

Aurtengo urtarrileko argazkia da.
Jubilatu batzuen kaleratzea salatzen
elkarretaratzea egin zuten Stop
Desahucios, Alokairu Benta Berri eta
Inquilinos Azora plataformek.

**BABES
OFIZIALEKO
ETXEBIZITZETAKO
ALOKAIRUAK
EZ IGO!**





Berlingo kaleetan manifestazioa Deutsche Wohnen higiezinaren enpresaren aurkako aldarriekin, etxebizitzaren alokairuen prezioak igo ez ditzaten.

LEONHARD LENZ / CREATIVE COMMONS CC BY 1.0

bota zuen eta beste pertsona batzuek, berriz, kontratua sinatzeko beharra sentitu zuten”.

Benta Berrin bizitzen hasi eta berehala konturatu ziren “engainuaz”, eta aipatutako Alokairu-Benta Berri bizilagunen elkarteak sortzea erabaki zuten, arazoari konponbidea bilatzeko. Izan ere, promozio hau Eusko Jaurlaritzak sortu eta bultzatu zuen, baina lursailaren eraikuntza eta ustiapen eskubidea berehala geratu zen enpresa pribatuen esku.

Hau dela eta, Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko ordezkariekin kontaktuan jarri ziren behin baino gehiagotan Alokairuko kideak eta ordezkari politikoei hasieratik utzi zieten garbi haiek jada ezin zutela ezer ere egin. Enpresarekin hitz egiten ere saiatu ziren: “Enpresak ez zuen Alokairu bitartekari gisa aitortzen eta ez genuen erantzunik jasotzen. Komunikazio bideak ixten saiatu dira hasieratik”, dio Iturratek.

Eusko Jaurlaritzaren konpromiso falta salatzeaz gain, haiekin komunikatzeko orduan ere arazo handiak izan ohi dituztela azpimarratu dute: “Oso zaila da haiekin hitz egitea. Bilera bat lortzeko hamaika pauso egin behar izaten ditugu eta bileretan arrazoiak ematen digute, nahiz eta gero ez duten ezer egiten egoera hobetzeko”.

Enpresak Alokairu bizilagunen elkar-teari ez erantzutea, hala ere, normaltzat jotzen dute: “Ez gaitu harritzen ez erantzuteak; enpresa pribatuak dira eta haien

helburu bakarra dirua irabaztea da. Helburu hori lortzeko edozer egiten dute, nahiz eta gauza batzuk legaltasunaren mugan egon”.

Eusko Jaurlaritzako
eta Donostiako
Udaleko ordezkariak
Alokairuko kideei
hasieratik utzi zieten
garbi haiek jada ezin
zutela ezer ere egin

EGOERA LARRITZEKO, FUNTS PUTREAK

Benta Berriko etxebizitzaren eraikuntza eta ustiapena hasieratik kudeatu dute enpresa pribatuak, UTE Benta Berri enpresa elkargoaren bitartez. 2016. urtean, baina, beste aktore bat sartu zen jokoan: Blackstone funts putrea, bere Testa higiezinaren enpresaren bitartez.

Testa UTE Benta Berrirekin fusionatu zen urte hartan eta kudeaketa haien esku geratu zen. Honek asko zaildu du lehendik zaila zen maizterren eta enpresako

zuzendarien arteko komunikazioa; izan ere, Testak Madrilen du egoitza nagusia eta aurtengo urtarrilean UTE Benta Berriko auzoan zuen bulegoa itxi zuten: “Testak komunikazio bide guztiak ixteko estrategiarekin jarraitzen du. Ezin ditugu gure eskaerak bidali eta posta elektronikoko bidezko komunikazioa ere moztu dute, ezabatu egin baitute lehen erabiltzen zuten helbidea”, salatu zuten urtarri-lean publikoki Alokairuko kideek.

Komunikazioa zailteaz gain, funts putre bat jokoan sartu izanak “legezko-tasunaren mugan dauden praktika mafiosoak” ere areagotu dituela azpimarratu dute: “Kontratuak moztzen ari dira eta gero eta arazo gehiago jartzen dituzte. Benta Berriko bi familiek etxea elkarren artean trukatu nahi zuten, gela kopuruegatik, eta nahiz eta biak ados egon, ez zuten aldatzea lortu”, diote.

Lehen aipatu bezala, 2028. urtean Testak nahi dituen prezioan alokatu ahal izango ditu Benta Berriko etxebizitzak eta maizterrek diote bizilagunen gehien-goak etxea utzi beharko duela: “1998. urtean Benta Berri ez zen ia existitzen, eta hein handi batean gu izan gara auzoa egin dutenak. Alokairuak izugarri igoiko dizkigute, Donostian etxebizitzaren prezioek ikaragarri egin baitute gora, eta gehienok beste norabait joan beharko dugu bizitzera”.

Laburbilduz, Alokairukoak Eusko Jaurlaritzaren eta etxebizitzaren kudeaketa arduratzen diren enpresa pribatuen

jarreraz dira kexu, baina azken hauena ulergarriagoa iruditzen zaie. Eusko Jaur-laritzarena, berriz, “guztiz lotsagarria” dela deritzote, eta egoerari buelta emateko berriro ere antolatzen hasiko direla adierazi dute Alokairuko kideek: “Presioa egiten hasi behar gara berriro ere, bestela honek ez du atzera-bueltarik izango”.

Euskal Herrian antzeko kasu asko daude, Iruñean, esaterako. Blackstone funts putreak, Testa enpresaren bitartez, 400 babes ofizialeko etxebizitza ditu, baina duela gutxi izaera hori galdu zuten. Pandemia iritsi aurretik, Maria Chiviteren gobernuak funts putrearen ordezkarietara eseri zen negoziazio mahai batean eta maizterrek gehienez 650 euroko alokairua ordainduko zutela adostu zuten, baina Nafarroako Gobernuak maizterrei dirulaguntzak ematen jarraituko zuela ere.

MUNDU MAILAKO ARAZOA

Gure mugetatik kanpo ere funts putreen presentzia eta eragina eguneroko arazoa da. Benta Berriko babes ofizialeko etxebizitzaren atzean dagoen Blackstone funtsak, esaterako, milaka etxebizitza eta eraikin ditu munduko hainbat txokotan, eta jabetzan dituzten higiezinak guztira 411 mila milioi dolarreko balioa dute.

Berlinen Benta Berriko babes ofizialeko etxebizitzekin gertatzen ari den antzekoa gertatu zen 2018. urtearen amaieran, baina emaitza oso ezberdina izan zen. Atzean BlackRock funts putrea duen Deutsche Wohnen higiezin enpresak Karl-Marx-Allee hiribide ezaguan dauden 670 etxebizitza erosteko eskaintza egin zuen 2018ko azaroan. Honek berehala asaldatu zituen bizilagunak eta protestan hasi ziren erosketa gertatu ez zedin.

Aste batzuek ibili ziren Karl-Marx-Alleeen maizterrak protestan, eta azkenean, 2019ko urtarrilaren hasieran, Deutsche Wohnen enpresak atzera egin zuen, eta Berlingo Estatuak Senatuak etxebizitza horiek erosteko erabakia hartu zuen, etxebizitza parke publikoa handitzeko. Hiribide ezagun honetako 670 etxebizitza erosi zituen Finantza Ministerioak, 90-100 milioi euro ingururen truke. Erosketa honen inguruan gehiago jakiteko, ARGIAk Eva Henkel Berlingo Finantza Ministerioako prentsa arduranekin hitz egin du.

Alemania batu eta sistema liberalizatu zenean, enpresa publiko baten esku geratu ziren Karl-Marx-Alleeen etxebizitzak hasieran, baina berehala

Karl-Marx-Allee

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Alemaniako Errepublikak Demokratikoak ahal egin zuen hiria berreraikitzen eta berreraikitze proiektu honen estandartea izan zen Karl-Marx-Allee hiribidea, hasieran Stalinalee izena zuena; 1952 eta 1960 urteen artean eraiki zuten hiribidea.

Alemaniako Errepublika Demokratikoa indarrean egon zen urteetan alokairuak oso baxuak ziren eta Alemaniaren batasunarekin sistemaren liberalizazioa iritsi zenez, etxebizitzak esku pribatuetan erori ziren eta alokairuek gora egin zuten nabarmen.

erosi zituzten enpresa pribatu batzuek. Henkelen esanetan, etxebizitzak “egoera tamalgarria” zeuden, eta inbertsio pribatua behar zuten hobera egiteko. Alokairuek gora egin zuten, Alemaniako Errepublikak Demokratikoaren garaian zeudenekin alderatuta, baina egonkor mantendu dira orain arte.

2028. urtean
Testak nahi dituen
prezioan alokatu ahal
izango ditu Benta
Berriko etxebizitzak
eta maizterrek
diote bizilagunen
gehiengoak etxea utzi
beharko duela

2018. urtean Deutsche Wohnen enpresak egin zuen eskaintzak Berlingo Senatuaren arreta bereganatu zuen:

“2018ko salerosketa pribatua gaizki diseinatu zuen Deutsche Wohnen enpresak eta garbi geratu zitzaizgun maizterren interesak eta eskubideak ez zituztela errespetatuko. Hau dela eta, Senatuak esku hartu zuen. Gure Ministerioak maizterren eskubideen eta pribilegioen inguruko argipen legala eskatu zuen eta demanda batzuei esker, maizterren eskubideak bermatzea lortu genuen. Horrek inbertsore pribatuen interesa jaitea eragin zuen eta azkenean Berlingo higiezin enpresa publiko batek erosi zituen etxebizitzak”, dio Eva Henkelek.


2021. urtean ere Berlingo Estatuak beste aurrerapauso bat eman du etxebizitza parke publikoa handitzeko. Izan ere, irailaren 26an erreferendum bat egin zuten Alemaniako hiriburuan eta estatuak 240.000 etxebizitza pribatu erosteko prozedura hastea onartu zuten biztanleek, aldeko %56,4ko bozekin; Berlingo etxebizitzaren %15 da hori. 13.700 milioi euro inguru balioko du erosketak.

Hala ere, erosketa horiek guztiek badute letra txikia eta Senatuak bera da egoera asko aldatuko ez dela dioena. Karl-Marx-Alleeen 670 etxebizitzaren erosketaren harira, honakoa dio Henkelek: “Erosketa hau garaipen handi bezala ikusten du askok, baina kostu handia izan zen estatuarentzat. Hau dela eta, kasu hau ez dugu kolektibizazioaren eredu bezala eduki behar. Izan ere, eraikin hauek maizterrek erosi bizi diren sektoreak dira, eta izatez, ez dute erakunde publikoaren horrenbeste laguntzarik behar. Badira estatuak sektore zaurgarrienak bizi diren etxebizitzak erosi dituen kasuak eta horiek dira etorkizunerako eredu izan behar dutenak”.

Izan ere, Berlinen etxebizitzaren egoera perfektua izatek urrun dago, nahiz eta beste leku batzuetan baino esfortzu handiagoa egiten den gizarteko sektore proletariatuenei etxebizitzara sarbidea errazteko. 2018. urteko ikerketa baten arabera, 60.000 pertsona inguru daude Berlinen bizileku finkorik gabe eta horietatik 2.000 eta 6.000 artean etxegabeak dira.

Estatu bakoitzak bere politika du etxebizitzaren inguruan, eta nahiz eta batzuenak besteak baino aurrerakoiagoak izan, gizarteko pertsona zaurgarrienentzat bizileku finko eta duin bat izateak buruhauste izaten jarraitzen du. ●

Etruriarrak eta inbasioen justifikazio morala



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Italiar penintsula, duela 2.800 urte. Etruriarrak, egungo Toscanatik abiatuta, penintsularen iparraldeaz eta erdialdeaz jabetu ziren, beren kultura eta teknika militarrei esker. Etruriarrak, besteak beste urregile bikainak eta ontzigile berritzaileak izan ziren, eta Mediterraneo mendebaldeko itsas potentzia nagusietakoa izatea lortu zuten. Baina zibilizazio heleniarraren oinordekotzat eta Erromaren arbasotzat jotzen direnei nondik zetorkien nagusitasun hura? Zein da etruriarren jatorria?

Misterioa argitzeko eta eztabaida amaitzeko, Tübingeneko Unibertsitateko adituek, Max Planck Institutuarekin eta Florentziako Unibertsitatearekin elkarlanean, 86 etruriar eskeleto bildu zituzten, DNA aztertu asmoz. Eta berriki ondorioztatu dutenez, arrasto berriengan, erromatar garaikoetan, ekialdeko nahiz iparraldeko eragin genetikoa nabarmena da, baina etruriarren goraldi garaiko indibiduoetan ez dute halako nahasketarik topatu. Hau da, etruriarrek bizilagun italikoen ezaugarri bertsuak zituzten eta ez ziren inondik etorri. Ekialdeko eraginak nabarmenak dira haiengan, herrialde heleniarrekin harremanak izan zituztelako, eta ez handik zetozelako.

Etruriarren jatorri autoktonoaren aldeko teoriak aspaldi sortu ziren. K.a. I. mendean, Dionisio Halikarnasokoak ez zuen kontrakoa pentsatzeko arrazoirik topatu eta, azken bi mendeetan, geroz eta arkeologo eta historialari gehiagok



TARKINIAKO MUSEO ARKEOLOGIKOA

egin dute DNAk egiaztatutako aukera honen alde. Baina, beste hipotesi bat nagusitu da orain arte: etruriarrak inbaditzaileak ziren, ekialdetik iritsi ziren K.a. VIII. mendean, Asia Txikitik, Egeotik edo Lidia ingurutik. Erljioan eta kulturaren ustez ekialdeko ezaugarriak zituztela diote teoria orientalistaren aldekoek, eta zibilizazio berezia eta oso aurreratua zutela, ingurukoekin alderatuta. Teoria hau bestea baino askoz zaharragoa da, gainera, historiografiaren aitak, Herodotok berak K.a. V. mendean sortu baitzuen.

Azkenean, etruriarren jatorri inbaditzailearen atzean ondo errotutako pentsamoldea dago, inbasioak, konkistak, inperialismoa moralki justifikatzen duena: herrialde menperatzaileek beren eragina hedatzeko beharra sentitzen dute, beren balio politiko, kultural eta erlijiosoak zabaltzeko, eta, ondorioz, herri menperatuei mesede egiten diete bakea, segurtasuna eta oparotasuna emanaz. DNA emaitza asko beharko dira zibilizazioen eta herrien arteko harremanak eta elkarreraginak berdinen artean ere gertatzen zirela onartzeko. ●



LIVIO ANDRONICO 2013

Erromatar hormigoia sekretua

Antzinako Erromako hormigoia ezaguna da erresistentzia handikoa zelako. Orain arte jakina zen harri bolkanikoa eta karea nahasteak ematen ziola trinkotasuna. Baina Massachusettseko Teknologia Institutua harago joan da, eta Erromako Via Appiako Caecilia Metellaren hilobitik (argazkian) ateratako lagina aztertuta, hormigoia haren osagai

sekretua aurkitu dute hango adituek: leuzita. Mausoleoan erabilitako material bolkanikoa leuzitan aberatsak ziren, leuzitak potasio asko dauka eta, euriaren eta ur filtrazioen ondorioz, potasioa hori askatu zuen, konposizio kimikoa aldatu eta, oharkabean, hormigoia askoz gogorragoa eta iraunkorragoa lortuz. ●

ERRIGORAREKIN ELKARLANA



Bost otar Argia Jendearentzat

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Abian da beste urte batez Errigora ekimenaren udazkeneko kanpaina, *Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka* lelopean. Nahi duen orok otarrak eskuratzeko aukera izango du Errigoraren webgunean zein ohiko puntuetan, eta hala, Nafarroa hegoaldeko laborantzari, euskararen aldeko proiektuei eta euskalgintzari ere ekarpen ekonomikoa egingo die.

2013an abiatu zenetik, ARGIA n ger-tutik jarraitu izan dugu Errigoraren ibilbidea. 2014an Argia Saria eman genion, bertako produktuak eta euskara uztartzeko egindako kanpaina arrakastatsuegatik. Geroztik sarritan bildu izan gara elkarri nola lagundu aztertze-ko, bat egiten dugulako hala balioetan nola helburuetan: euskara, elikadura-buruja-betza, auzolana...

Aurten ere Errigorako komunikazio arduradunak ARGIAko kideekin izan dira, eta harreman horren ondorioz ekimenak martxan jarritako *Agerraldia* proiektuaren berri eman dugu joan den

asteko aldizkarian (2751 zk.) errepor-taje batean, Argiazaleak ikusiko zuenez.

Duela bi urte sortu zen Agerraldia sarea -gure multimedia kanalean lehen pausoen kronika duzue ikusgai-, euskararen aldeko kanpainaren iraunkortasuna bermatze aldera; euskara bultzatzeko proiektu eta egitasmo zehatzak diruz laguntzen ditu, aurretik *ager*-eko herritarrei galdetuta. Bi datu: aurten 18 ludoteka berri izango dira Nafarroa hegoaldean eta erdialdean, eta 25 ekoizle euskara plana martxan jarri dute.

ZOKETAN PARTE HARTZEKO

Errigorarekin abiatutako elkarlanari esker, Nafarroa hegoaldeko ekoizleen bost otar jasoko ditu ARGIAk, eta gure proiektua ekonomikoki sostengatzen duen Argia Jendearen artean banatuko ditugu.

Zoketan parte hartzeko, ARGIAko kideek komunitatea@argia.eus e-postara idatzi edo 943 37 15 45 telefonora deitu dezakete izen-abizenak emanez, azaroaren 8a baino lehen. ●

ARGIAREN LIBURU AURKEZPENAK

Sendabelarrekin dakitena

Garbiñe Larrea Iturraldek liburua aurkeztuko du.

Azaroak 2 12:00etan

Donostia Udal liburutegian: Konstituzio plaza, 2. solairua.

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirrek liburua aurkeztuko du.

Azaroak 3 12:00etan

Donostia Udal liburutegian: Konstituzio plaza, 2. solairua.

Txori urdinak

Espetxe sistemaren erretratu bat Santi Cobos presoaren bizipenen bitartez
Zigor Olabarriak liburua aurkeztuko du.

Azaroak 27

Gasteiz Gaztetxean.

Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Liburu hauetakoren batean oinarritutako hitzaldia antolatu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Garbiñe Larrea sendabelarre buruzko hitzaldia antolatzeko, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera.

Koldo Rabadanek hezkuntzaz edo Zigor Olabarriak kartzelaz atera duten liburuari buruzko hitzaldia antolatzeko, idatzi azoka@argia.eus helbidera.

5. KANPORAKETA
ELORRIO

Urriaren 30ean, zapatua,
17:00etan, Arriola antzokian

Aitor Arrutia Azkueta, Igor Galarza Intxausti, Imanol Arrutia Azkueta,
Imanol Uria Albizuri, Iñaki Iturriotz Zuluaga eta Peru de Pedro Larrea.

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsozarerak.eus

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2021







BEGANOAK EZ DIREN LANDAREEN ARTEAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bizitzeko jan beharra dago. Animalio beste animalia bat edo landareak janez bizi gara, ez dago beste biderik. Landareek bere kasa sortzen dute janaria: elikagaiak uretan nahasita hostoetaraino eraman, argiarekin eraldatu eta janari bihurtu eta jan. Horretarako onddo, bakterio eta abarrekin elkarlaguntza antolatzen dute, gehiengan sustraian gauzatzen dena; landareak zerbait emango dio lagun horri eta hark bueltan beste zerbait: jeneralean ematen duten hori bestearentzako eskuratzeko gaitza den zerbait izan ohi da. Eman-hartu horretatik biek lortzen dute etekina, bientzako onuragarria da. Jesus Izco Sevillano botanikariaren arabera, landareen %95 ezin biziko litzateke elkarlan hori gabe, bereziki mikorrizarik gabe, hau da, onddoekin emanhartu gabe. Onddoak lurlean dauden mineralak (nitrogenoa, fosforo...) xurgatu eta landareari emango dizkio; landareak, bueltan, hostoetan fotosintesi bidez ekoiztutako azukreak (fruktosa, sakarosa eta abar) emango dizkio.

Badira elkarlana beste era batera ulertzen duten landareak ere. Landare batzuk beste batzuen bizkar bizi dira, bizkarroiak dira. Bizkarroien eta ostatazaileen artean era askotako eman-hartuak sortzen dira. Bi multzo nagusitan



banatzen dira: ostatazaileari izerdia xurgatu eta fotosintesia bere kasa eginez bizitzen direnak (adibidez, mihura -*Viscum album*- zuhaitzen adarretan) eta fotosintesia egiteko gai ez izan eta lapurtzen dutenetik soilik bizi direnak (Euskal Herrian baditugu adibidez kuskula -*Cuscuta spp.*-, *Cytinus hypocistis* eta *Orobanch* genero ugaria).

Bere dietako premiak asetzeko beste bide batzuk jorratu dituztenak ere badira, landare haragijaleak, adibidez. Haragijaleak esaten zaie baina batez ere intsektuak eta artropodoak harrapatzen dituztenez, landare intsektujale esatea egokiagoa iruditzen zait. Harrapatutako intsektuak disolbatuz eta liserituz oinarritzko mantenuaiki xurgatzen dituzte.

Landare horietan paradoxa ederra gertatzen da: intsektuak behar dituzte bere loreak polinizatu eta ernaltzeko,

eta intsektuak janez osatzen dute bere dieta. Biak erakarri behar ditu beregan, baina noski, polinizatzailea ez du jango. Polinizatzailea lorera erakarri behar du eta jangaia tranpara. Ikargarrizko arteak garatu dituzte biak bereizteko. Batzuetan loreak tranpak prestatu aurretik irekiko dira. Beste batzuetan loreak eta tranpak urrundu dituzte, adibidez tranpak lur azalean eta loreak airean txortean luze baten muturrean. Badira, baita ere, erakarri nahi dituztenak limurtu eta berenagatzeko berariazko gai desberdinak sortzen dituztenak lorean eta tranpan; koloreak, usainak edota opari edo sari itxura izan dezakete: polena, nektarra, olio... Landare leinu bakoitza bere era egokitu da, intsektuak jatera. Gure espeziearen etorkizuna ere horixe dela gero eta maizago entzuten dut... ●



25 urte elikagai
ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARRORRI NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKAREN KONTZESILIA



25 AÑOS | URTE
CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARRORRI NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKAREN KONTZESILIA

JAKOBA ERREKONDO SALTSAMENDI

“NORK BERE BARATZEA EZAGUTZEKO SISTEMARIK ONENA DA OHARRAK HARTZEA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Hemen da Ilargiaren eta landareen 2022ko agenda, baratze eta landaredun etxeetan ohiko —eta kasik beharrezko— bihurtu den lanabesa. Aurtengoan ere, Jakoba Errekondo Saltsamendiren testuei Antton Olariaga Aranburuk jarri dizkie marrazki ederak. “Bizitzarako agenda dugu honakoa, norberaren egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartzeko erreminta”, dio kontrazaleko azalpenak. Bada, eskuragarri dago honezkero erreminta praktikoko bezain eder hori ARGIAko Azokan eta ohiko liburudendetan eta Jakoba Errekondori galdetu diogu aurtengoaren berezitasunez.

Bosgarren agenda da esku artean duguna. Zer du berritik aurtengoak?

Bi nobedade ditu aurtengo agendak: alde batetik, formato fisikoa bera aldatu dugu, espirala jarri baitiogu erabilgarriago egiteko eta oharrak hartzeko espazio guztiak ongi aprobetxatzeko. Bestetik, urtero gai bati ematen diogu protagonismoa, eta aurtengoa ongarriena izan da, hilero ongarriaren ikuspegitik egin behar diren lan nagusiak biltzen dira. Gainera, aurreko urteetan baino testu gehiago sartu dugu aurtengoan, gaiak askorako ematen duelako eta jendeak ere eskatu duelako.

Aurreko urteetako zenbait atal mantendu dituzue, dena den.

Bai, sarreran badira atal finkoak: ilargiaren inguruko azalpena dator, honen eraginaren ingurukoa, eta bukaeran, berriz, baratzean egin behar diren oinarriko lanak ere badator: txandakatzeak, nonorekin doan ondo, belarrarekin egiteko tratamendu naturalak... Horiek guztiak errepikatu egiten dira, jendeak eskertzen baitu lan horiek eskura edukitzea.

Ilargiari kasu egitea hain da garrantzitsua?

Bai, garbi dago eragina baduela baratzean. Ilargiak bi ziklo ditu, eta batez ere horietako batek du eragina: ilgoran edo ilbeheran egoteak. Baten edo bestearen eragina oso nabaria da baratzean, bai ereiteko momentuan, baita landatzera-koan, ongarriak egiterakoan, lurra lantzerakoan, inausketetan eta txertaketetan... Hasierako atalean azaltzen da hori guztia. Azalpenez gain, astero-astero ilargia zein egoeratan dagoen ere agertzen da bi zikloi dagokienez: ilgora eta ilbehera, eta ilzarra eta ilberria.

Jabeak bere oharrekin osatu beharko du agenda aurten ere...

Noski, bakoitzak bere lanak txertatzeko eta horretatik ikasten joateko da agenda. Azkenean, ez da gauza bera lan bat Tuteran edo Mutrikun egitea, toki bakoitzean lurraren kalitatea aldatzen da, mikroklimak ere hor daude... Horrek denak



DANI BLANCO

eragina du baratze bakoitzean gertatzen denarekin. Apunteak hartuz, lanak gure lurrera, gure baratzerara egokitzen ikasiko dugu. Eta, norberak ikasteaz aparte, ondorioak elkarbanatzeko aukera ere emanen digu! Norbere baratzearen ezaugarriak ezagutzeko eta nola lan egin ikasteke sistemarik onena da oharrak hartzea.

Antton Olariaga ekipoko parte garrantzitsu bihurtu da honezkero, ezta?

Bai, ikaragarria da Olariagaren ekarpena, agenda arrunt bat artelan bihurtzen baitu. Bere marrazki bakoitzak koadro bat egitea merezi du, urtetik urtera hobekien dira. Azkenean, Olariaga ere gaia-ekin bustitzen eta ikasten ari da eta hori nabari da. ●

Basherrri
sare
GAIZKORAKO KONTSUMO TALDE ETXAKO KOOPERATIBAK

Elika gaituz irizpideak kontuan hartuta eta **amalurra zainduz**

655709043 | info@basherrisarea.eus

“ ”

Gaur egunean existitzen ez den lanbidea da kazetaritza”

Guillem Martínez, kazetaria

Guillem Martínez (Cerdanyola del Vallés, Herrialde Katalanak, 1965) usatua genuen Kataluniako prozesuan. Gai horri eskainiak dizkio bere lerrorik onenak. 78ko erregimenari ere bai, harena da Trantsizioaren Kultura (CT) kontzeptua. Barrura begira jarri zaigu orain *Los domingos* liburuan (Anagrama, 2021). Ez lirudike bere lanaren lagin identifikagarri bat; ez du erabat traizionatzen Guillem Martínez zigilua, ordea.

✍️ ARITZ GALARRAGA 📷 DANI CODINA

Beste hark deskantsu hartu zuen egunean botatzen ditu zutabeak, CTXT agerkarian. Astearte batean egin dugu elkarrizketa guk, igandek, are igandean ateratzen diren Martinezen testu horiek, izan ohi duten goibeltasun punturik gabe. Kontrara, mugimendua etengabekoa da elkartu garen terraza inguruan, Bartzelonako Galvany auzo ezkutuan. Zarata ere bai, eta gure solaskideak ez du bereziki tenore ahotzik; bere alkandorarekin ari dela dirudi maiz. Aparatuak zeozer grabatzen badu, Sony deunari kandela bat jarriko diodala zin egin dut, ebaki batek bustitako esaldi solteren bat harrapatzen diodan bitartean.

Martinez jauna, zein zen zutabe hauen hasierako asmoa?

2016koa da ideia, atal intimo bat egitea, aurreikusten bainuen zerbait oso ezatsegina gertatuko zela politikan. Eta prozesu politiko gogor hauekin dese-

gin egiten zara. Beraz, gauza pertsonal bat egitea zen asmoa, nor nintzen gogoratzeko, politikatik harago; jakin nahi nuen nor nintzen. Postal txikiak dira, hunkigarriak, kazetaritza baliabideak erabilia, baina ez bakarrik, poetikoak ere bai; eta uste dut funtzionatzen duela literarioki, baita kazetaritza aldetik ere, pertsonalki.

Zutabe, artikulu, testu bilduma bat da *Los domingos*, kazeta-testuak, inondik ere; kurioski, Anagramako Narrativas Hispánicas sailean publikatuak. Oximoron bat ote?

Oso harro nago horretaz. Egin kontu, Julien Sorelen gisako bat naiz ni. Bartzelonara iritsi nintzen, gerriko industrialetik, beste unibertso bat zen, eta Anagramak elikatu ninduen iritsi berritan: argialetxeak antolatzen zituen aurkezpenetara joaten nintzen, afaltzera; eta gero kulturari buruz hasi nintzen idazten. Eta hor konturatu nintzen autoreek

guk kazetariok baino gutxiago zutela autoretik. Kazetariak idazketaren profesionalak dira, autoreak ez beti. Umiltasunez diotsut: joko-arau diferentek ditugu, erabaki propio gehiago hartzeko aukera, aukera estilistiko gehiago, eta ez gaude autorearen irudiari hain lotuak. Horrek libertate handia eskaintzen dizu.

Kazetaritzak bere baitan dena onartzen duela esan daiteke, edozein testu mota. Baina literaturak ere bai. Zein da bien arteko aldea, beraz?

Komatxo artean, egia. Kazetari batek idazten duena egiaztagarria da, izan beharko luke; idazle batek idazten duena ez. Egiarekiko konpromiso hori, irakurleak berehala deskodetzeko gaitasuna duena, da orduan bien arteko aldea. Egia balitz bezala irakurri behar da kazeta testu bat. Errealitatearen irakurketa bat egiten da, eta horren arabera baloratu behar dira kazetariaren zintzotasuna, trebetasuna, gaitasuna.



Bada jendea defendatzen duena egunkarietan argitaratzen dena egunkarietan geratu behar dela. Interesatuko litzaidake prentsako testuek liburuetan izan dezaketen bigarren bizitza horren defentsa egitea, ez baita hain ohikoa.

Gauza asko argitaratu ditut lehenik aldizkarietan agertutakoak, eta arraroak gertatu dira, audientzia tenporal bat daukatelako. Hau liburu biografikoa da, niaren eta niaren pertzepzioaren literatura, bizitako gauzak, ikusitakoak; gaur irakur daitekeena, baina espero dugu hemendik hamar, hogeit urtera ere bai. Apustu linguistiko bat ere egin dut, normalean egiten dudana oso bestelakoa.

Testu autobiografikoak dira oso, "autobiografikoenak", Ignacio Echevarria apailatzailearen esanetan. Zure kazetaritza lana ezagutzen duenarentzat durduzagarriak: espero baino gutxiago egin dut barre. Aldiz, espero baino puskaz gehiago hunkitu naiz.

Asko gustatzen zait barre eginaraztea, betidanik izan dudana beharra da, inori barrea ateratzea plazer izugarria da; baina denborarekin ikusi dut beste aukera berdina eder bat, telebistan lan egin dudanean erabili dudana, eta da barre eta negar eginaraztea, batera. Lortzen duzunean estasia da. Baina hemen pentsatu nuen ezetz, ezin nuela barrerik eragin; are, pentsatu nuen batzuetan negar eginarazi behar nuela, zeina azkeanean barre eginaraztearen oso antzekoa den, mekanismoa oso antzekoa da: espero duzunaren zapuzte bat.

Biografia, intimitatea, akademiaren arabera kazetaritzak beharko lukeenaren kontrakoak dira; zein punturaino sentitu zara ezeroso, gauzak esplikatzeko barneko zera horiek erabilia?

Zailduta nago honezkero. Gainera, ez da erakustaldi bat, erakusten dudana ez baita askotan eraikitzailea; ez naiz sentitu biluzik, eta biluztu behar izan naizenean kamuflatu egin dut, beste pertsona baten azpian, irakurketen azpian. Batez ere beste pertsona batzuen intimitatea babesteko. Liburuak ez du munduko gaizkiaren alde apustu egiten, krudela izan daiteke, baina ez gaiztoa. Nire bizitzan ez dut gaizkiarekin topo egin, arbasoek bai, eta orriotan ikusten da, eta hain justu horrek laguntzen dizu neurria hartzen: nik ez dut sekula ikusi



sarraski-zelai bat, ez garondoan tirorik, eta horrek behartzen zaitu baikor izatera ikusi duzun zikinkeriaaren aurrean. Ez da konparagarria gure aitona-amonek ikusi zutenarekin.

Liburu aski baikorra da, nahiz eta pixka bat kontraesankorra ere baden: batzuetan diozu bizitza gustuko duzula, baina beste batzuetan gero eta gutxiago gustuko duzula.

Bizitza asko gustatzen zait. Malrauxek esaten zuen: bizitzak ez du ezer balio, baina ezerk ez du bizitza balio. Hori da. Porrot pertsonalak daude, ez dut esango mundu posibleen artean onena dela, baina munduan zehar gertatzen denarekin konparatuta, gure lehen mundu honetan baikor beharko genuke; amorrutik handia ematen dit lehen munduko hirugarren munduzalekeriak.

Memoria historikoa oraindik bizi dagoen garaiotan, hain zuzen, gustatu zait ahanzturaz egin duzun errebindikazioa.

Ezkerra obsesionatuta dago iraganarekin. Hemen gerra bat egon zen, ados, esplikatuta dago. Baina azken batean bizitzan, ahanztura, ez da bakarrik beharrezkoa; batez ere oso ohikoa da, ezinbestekoa, goizero ohetik altxa ahal izateko. Edozein pertsonaren bizitza pribatua ahanzturaz dago eraikia, edo

bestela erotuta dago. Gogoratuko bage-nu egin dugun guztia, egin ez dugun guztia, egin diguten guztia... Ez du merezi, gainbaloratuta dago memoria; oso gauza europarra, bide batez, eta krimenaren motore bat. Amerikarrek ez dute memoriarik, liburuan aipatzen diren australiarrek ere ez, eta zoriontsuago dirudite; baina horretaz aparte, intelektualaiki, oso jarrerara positiboa iruditzen zait.

Ez nekien hainbeste bidaiatu zenuenik, bide batez, liburu honekin deskubritu dut.

Pagotxa zen garai hartan kazetaritza, asko bidaiatzen genuen, lanbide ona zen. Ogibidearen urrezko aroa ezagutu dut: 70eko hamarkada arte ez zen existitzen kazetaritza, lanbide ugari zituzten kazetariak, eta egoera horrek 2008ko krisira arte iraun zuen. Hiruzpalau hamarkada, beraz. Kazetaritzak ahalbidetu zuen ni bezalako tipo batek mundua ikustea; ikusi ditut sekula imajinatuko ez nituzkeen gauzak. Baina gaur egunean existitzen ez den lanbidea da kazetaritza.

Bartzelonako periferia agertzen da sarri liburuan, zonalde horrek ezagutu duen migrazio prozesua, askok traumatikoki bizi izan zutena; baina ez da agertzen modu traumatikoan.

Nire familia migratzaile izan da, ni naiz bere gurasoak jaio diren leku berean

jaio den familiako lehen kidea. Uste dut migrazioa mentalitate bat dela; lekuz aldatzen den jendea indartsua da, eta azkarra, eta ona. Txikia nintzela 60 ginen klasean, eta katalanez hitz egiten zuten bik, eta ez nuen bizi izan trauma bezala. Laguntasun, bozkario, bizitzeko irrikaren festa zen hura, Coney Island moduko bat. Gaur egunean ere ikusten duzu: hegoamerikarrak, afrikarrak... eskola baten aurretik pasa eta zuririk apenas. Positiboa da, abentura kolektibo bat, hainbeste jende, kolpetik, eta denak hobetzeko, aurrera egiteko asmoarekin.

Ezkerreko ideologiaren definizioa gustatu zait, halaber, munduan dauden sufrimenduen aurreko erantzun bat direla; baina, sufrimendua ahaztu gabe, ez ote luketen proposatzaile izan behar, desioa indartu, lehen aipatzen genituen bizitzaren alde onak.

Ezkerrak, betidanik, eta orain eskuinak ere bai, hiper-sentimentalak dira, eta kolpetik gorroto dut sentimentalitatea, hala bainaiz, eta nahiz eta gorrotoa ere sentimendu bat den. Ezin da politika egin sentimentaltasuna ukituz, ezkerrek bilakatu beharko lirake material, eta abandonatu politikan sentimentaltasun guztia; aberastasunaren banaketaren alde egin, eta gauza gutxi gehiago. Sor-tzen ari gara hiztegi oso arraro bat, lengoaiaren konfiantza absurdu bat, ematen du izenordainak aldatuta jabegoa desgertuko dela; baina askatasunaren sinonimoak dira eskubideak, eta banaketa. Horrela ari da ihes egiten jende gaztea, protesta egiten ari da horren kontra, ez dago uki dezaketen ezer materialik.

Testu hauek ziren aringarri, iganderako, aste barruan beste testu mota astunago bat idazten zenuen

bitartean; adibidez Kataluniako prozesuaz. Zergatik idatzi politikaz, orduan, hainbesteko sufrimendua eragiten badu?

Testu hauek ez dira batere samurrak izan: hasten nintzen astelehenean, hiruzpalau orri, eta igandea gerturatu ahal geratzen zen orrialde erdi batean. Eta Kataluniako prozesuaz hitz egin behar genuen inork ez zuelako hitz egiten, adierazpenak hartu eta errepikatzen mugatzen zen jendea. Eta prozesuak eskatzen zuen esplikatua izatea, itzulia izatea, komunikazio eraikuntza oso indartsua baitzen; hitz arrazoizkoetara ekarri behar zen. Basikoki, ez zen ezer esan, eta eraiki zen nazionalismo katalanaren marko berri eta kezkarri bat. Oso desanimatuta nago herri txiki honen etorkizunarekin, bere izatearen arrazoi bakarra ezin daiteke izan kontserbazio propioa. Harrigarriena da, gainera, zer nolako erraztasunarekin egin den: ikusi da oso erraza dela gizarte baten pertzepzioa aldatzea demokrazian ere.

“ ”

Edozein pertsonaren bizitza pribatua ahanzturaz dago eraikia, edo bestela erotuta dago

Une batean iritsi zinen bi prozesu deskribatzera, bat gobernuarena, bestea gizartearena, askotan zerikusirik ez zutenak. Prozesu zibiletik zerbait geratzen ote da? Ez, ez, gertaerek gobernu joera hartu

dute azkenerako. Pentsatzen genuen gizarte zibila existitzen zela hemen, eta ez da existitzen. Espainiako gizartearen be-zain babesgabe dago Kataluniakoa.

Bartzelonan ere ez, Katalunian dagoen baina Katalunia ez den entitate horretan?

Bartzelona oso originala da, betidanik, eta entitate oso indartsua da Katalunia bezalako herrialde batentzat. Kanpoan egon naiz urte pare batez, eta itzultzean oso triste aurkitu dut, prozesu ondoko paisaia batean. Izan ere, Kataluniakoa eskuin muturrak Espainian ibili duen lengoia baten kontra sortu zen, ez dut uste komunitateen arteko arazo erreal bat dagoenik, oraindik. Eta inoiz baldin badago, izango da borondate politikoa-gatik, Jugoslavian bezala. Aitortu behar da Kataluniako dibertsitatea, Katalunian batakoa ere bai, nazio bat ez da gauza homogeneous. Ondo legoke hau bukatzea Bartzelonarentzako egitura batekin, behar du Madrilengisako administrazio bat; banderarik gabe, noski, proiektu nazionalik gabe. Baina Espainiak plurinazionaltasuna aitortzea bezain zaila izango da hori.


Bukatzeko, partekatzen dut zure iritzia: idatzi dituzun gauza onenen artean daude zutabe hauek, behin baino gehiagotan bisita egingo diodan liburua da.

Mila esker. Liburua ez dut irakurri, zuzenketak egiteko bai, pandemia aurretik, gero atzeratu zen, eta ez dut oso gogoan. Baina aurkikuntzaren bat baldin badago, pozik. Testu luzeak gutxi dira, nahiz eta Jorge Herralde editoreari gehien gustatu zaizkionak horiek izan. Niri ez. Nire fantasia da hiru lerroko artikulua idaztea. Enrique Jardiel Ponce-lak bezala. ●



LIBURUA

Hitz egin dezake estralurtar subalternoak?



HAJOR

OIHAN HITZEAN MUNDUA

EGILEA: URSULA K. LE GUIN
ITZULTZAILEA: AMAIA APALAUZA

IGELA, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Egin kasu Arrate Hídalgo sarreran diotsunari. Ez lotu *Oihan hitzean mundua* Vietnamekin. Ez akabatu eleberriaren fikzioa, eta ez egin kontakizuna Gerra Hotzeko inperialismoaren gatibu.

Hartu zientzia fikzioa, Amaia Apalauzak itzuli eta Igelak argitaratu duena, bere horretan. Utzi etorkizun espekulatiboari gaurko botere harremanak azaltzen. Erabili Le Guinen lana zuk zeuk betiketzen dituzun menderakuntzak galdekatzeko.


Barkatuko didazu, momentu batez, itzulingurua: Gayatri Spivak pentsalariaren *Hitz egin dezake subalternoak?* hitzaldi ezagunaren gaia ez zen subalternoak hitz egin zezakeenetz. Arazoa zen inperioaren kokagunetik ezin zi-

tziola subalternoari entzun. Ondoren, hitzaldia *Arrazoi postkoloniarraren kritika* liburuan txertatzean, ikergaia berriemaile natiboa izatera igaro zen: etengabe hitz eginarazten zaion subjektu menderatua, inperioak entzun bai, baina inperioak nahi (edo ahal) zuena ulertzeko, eta ulertutakoarekin menderakuntza bermatzeko.

Bada, hor ditugu Le Guinen eleberriaren erdigunean Rai Liubov eta Selver: intentzio oneko antropologo inperiala eta berriemaile natibo subalternoa. Liubovek gelditu barik hitz eginaraziko du berriemaile eta Selverrek etengabe egingo dio berba antropologoari. Alta, Liuboven ulertzeko ezintasunak gurutzatzen du istorioa, eta batez ere, ezintasun horrek dakarren sarraskiak.

Are, Le Guinek Liubov bezain ezgai egiten gaitu. "Selver, sha'ab. Baina zer esan nahi zuen sha'ab horrek? [...] jainkoa [...] edo entitate numendarra, edo izaki boteretsua [...] bai horixe [...] itzultzailea". Ezin erabaki, irakurleak ere subalternoaren aurkako gorreria biolento horretan hartzen du parte. Hitz egin dezake Selverrek, estralurtar natibo berriemaile subalternoak? Dakigun bakarra da Liubov, flota inperiala eta gu geu ere ez garela dioena ulertzeko gai.

Liburua irakurri eta Vietnamez diharduela erabaki beharrean, pentsatu liburuak zuzenean interpelatzen zaituela. Zu ere gorra zarela zapalduen aurrean. Eta gorreria hori erabat dela biolentoa. ●



MUSIKA

Laranjondoari eta etxeko beste zuhaitz guztiei



KRAK
MAITTE LARBURU
ZART

XALBA RAMIREZ

Manex eta Ximun Fuchs eta Maitte Larburu. Hirukote bat oholtza gainean, *Amua* antzezlanean, maitasunaren gogoetan: “Bi laranja erdi eta hiru bihotz”.

Antzerki obra baterako egindako soinu banda? Edo disko bat antzezlan bihurtuta? Harrigarria egiten zait nola uztartu dituen bi hizkuntzak horren ongi. Antzerkia entzuten ari zara, eta musika ikusten, istorio bera kontatzen, bide ezberdinetatik.

Amu(r) kantua, adibidez, antzezlaneko gidoitik osatutako collagea da. Saltoka, obran aurrera eta atzera eramaten zaituena, *teaser* baten moduan edo laburpen gisa. Kasu honetan, Carlos Taroncherren klarinete baxuaren dotoreziarekin. Esaldi modernoak eskaintzen ditu jazzera jo gabe. Diskoaren kolore tonalitatea zabalduz doa kantuz kantu.

Erritmoaren arduradun Karlos Aranegui dugu. *O* kantu erritmikoena dantza-garri izateaz gain, beti bezala bere lekuan

mantentzen da. Badaki, bai, gutxierekin kantuari asko ematen.

Larbururen konposizioa eta kantaera ez da esperentalismoa, baina kategorietan ezin dezakegu sartu. Bertso forma berreskuratzen du *Arrailak*-en, poesia konkretu artzetarra *Igualak Igual*-en (kasu honetan Harkaitz Cano lagun).

Ion Celestino gogora ekarriz –zenbatgarrenez lerro hauetan?–, euskal kantuarren inguruan honela zioen: “Anarik nola kantatzen duen: Anari biluzten baduzu, izan liteke beste garai bateko abeslaria...”. Antzekoa pentsatu dut Larburuz. Pop abangoardistan badabil ere, tradizioetik asko du, modu minorretatik. Bedaxagarrak –adibidez– soiltasun eta indarrarekin hartzen du eszena. Zein apaingarri gutxi eta zenbat dotorezia.

Maitasunari buruzkoa da beraz diskoa eta obra. Baina maitasuna zer da? ‘Maitasuna da’ kantuan ematen digu erantzun bat, akaso konbentzitu ez gaituena, akaso. Hala dio letrak: “...mmmmmm...”.

Lekuari eman diote garrantzia. Nondik eta nora maitatzen den. Fuchs anaiek ondo dakite lekua izaten eta “lekutik” egiten, letrak dioen moduan. Diskoan leku asko asmatzen dira. Galdera gehiago erantzunak baino, agian: “Nondik baltitz?” edo “Hautetsia izan al naiz?”.

Izan ere, maitasunaren gogoeta ezin da laborategian gauzatu. Denok daramagu erantzuna barnean, maitatzeko gure modu egoista, biktimista, pelikuleroa, prestamista, gaupaseroa, peloteroa, inbidiatsua edo interesatua agertzen delako gutxien espero dugunean. Eta Larburuk, Jean Paul Sartre parafraseatuz, argi uzten digu erantzun semantikorik ez dela, izan ere: “Maitasuna ekintzetan gauzatzen duk. Ez emozio eta sentimenduetan... Horiek beren kabuz bizi dituk, joan-etorrian dabilta”.

PD: Itoizen *As noites da radio lisboa* kantuatik soilik, merezi du diskoa eskuratzeak. ●



Ordalias: bidaia bat subkontzientera

📍 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📺 ORDALIAS

Ordalia epaiketa bat da, akusatua Jainkoaren aurrean egin beharreako bere fedea eta zintzotasuna frogatzeko. *Ordalias* (AK-Athon Records, 2020) Ian Mason musikariaren lehen lan luzea da. Hamairu abestiz osatutako diskoan, musikari bizkaitarrak hamairu epaiketari egin die aurre. Diskoa aurkezteko kontzertu sorta berezia (dolmenetan, abandonatutako elizetan, basoetan, bide gurutzetan eta abar) antolatu zuen iaz eta bidaia horren lekuko da *Ordalias, el viaje* (Twobaskos, 2021) dokumentala. Eduardo Pascual Ausucuauren gidaritzapean bidaiaren geldialdi, bizipen eta gogoetak irudi ederrekin lagunduta aurkeztu zaizkigu. Ordubeteko dokumentala Bermeoko Mareak Jaialdiaren egitarauaren barruan aurkeztu dute.

Ian Masonen bidaiak helburu bat dauka: Jainkoarekin bat egitea eta haren aurrean epaitua izatea. Ez da ulertu behar, inolaz ere ez, Jainkoa zentzu kristauan.

Ian-en bidaia espirituala da, guztiz, baina ez du erlijio ofizial baten etiketarik izango. Hasieratik argi utziko du ez duela bere helburua lortu. Orduan, zertarako berak egindako bideari arreta jarri? Zertarako, huts egin badu?

Musikariak gitarraz eta lau lagunuen konpainiaz gure arbasoentzat leku sakratuak izan zirenak bisitatuko ditu. Berea ez da nostalgia ariketa bat izango, ezta ezagutu ez duen iraganaren mitifikazioa ere, etorkizunera begirako jarduera izango da. Leku sakratu horien energia telurikoa kargatuko du, edo saiatuko da, agortuta dauden bateriak bailiran. Horrela, Ianek hainbat leku bisitatuko ditu: Argiñetako hilerria, Mendiluzeko Cromlech-a, Cambadoseko (Galizia) San Sadurniñoko dorrea, Santa Mariako monastegi abandonatua (Rioseco, Burgos) eta abar. Mapetan ezkutuan dauden lekuak bilatuko ditu, lehenengo geruzaren azpian gordetzen diren sekretuak aurkitzeko

'ORDALIAS, UN VIAJE' DOKUMENTALA

NOIZ: urriak 16

NON: Nestor Basterretxea Aretoa (Bermeo)

William Blake artistak bigarren begirada deitzen zuen horren laguntzarekin.

Esan bezala, Masonek bidea gitarraren eta lagun gutxi batzuen konpainiarekin egingo du. "Nirekin etorri nahi duena, etor dadila. Lekuko izan nahi duenak, bideari ekin diezaiola", aipatu du musikariak. *Ordalias* diskoa kaleratu zuenean bere asmoa zen ohikoa den zirkuitutik atera eta, Erdi Aroko koblar ibiltarien antzera, musika zerbait bizia bezala ulertzea: artea lurrarekin eta pertsonekin lotzea, garatzen den zerbait organikoa bezala bizitzea. Musika egitearen zergatia argi du Ian Masonek: gizakiaren eta Jainkoaren lotura espirituala bilatzea estetika, sinbolo eta tradizioaren bidetik.

Bidea amaituta, edo, amaierako kredituen ondoren, Ianek bere buruarekin bat egingo du, bere mitologia propioarekin. Hori baita bidaiaren helburua: emandako pausuekin zure mundua ulertzea, zu zeu nor zaren jakitea. ●



Hitz gezidunak

* Gaia: Goierriko herriak

EGONGELA, ARETOA KULUNKA	AIREZ BETE ITSASONTZIZ	HALTSU ETA JATSU, ... BEDINTSU	PARE BAT ABIATZEN DA	BARAZKI HOSTOTSUA KAIKU, KIRTEN	EGITE, EKINTZA ONDDO IZENA	MAROKOKO DINASTIA ALDIZ, ORDEA	
		* SUARI DARIONA		ESTUA, NEKEZA TESLA			
* TARTEAN JARRI					ARGIBIDE DAGO		
SAGU S BARIK	LETRA IZENA *					IHI *	
		ORE JANGARRI		GAUZA, KAPAZ HUTSA, HOBENA		ALKANDORA	
BARAZKI HOSTOTSUA DOL-TALDEA							
	HIDROGENOA BADAUKA			UGATZ, BU- LAR (ALD) KOMIKI OSPETSUA			
IBAIETAKO PASABIDE ZAKURRA		LATORRIZKO ONTZIA ZEN	1500 ERROMATAR ZENBAKIZ PINU MOTA	TONA NAFARROAKO MENDATEA	ZEREZKO ATZIZKIA INGURU		
		* OSMIOAREN SINBOLOA				ROENTGEN MUSIKA ESTILOA	
NAFARROAKO HERRIA GOGOETA EGIN			AXOLAGABE TENPERA- TURA				
					KASIK		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1				5	4			
		3			6	4	9	
4			3	8	1	6	5	2
		8	1	6	7			
	6			3			1	
			5	4	2	7		
7	9	2	4	1	3			5
	1	5	6				2	
			2	9				7

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Pilotan jokatzeko tresnak.
2. Egitekoa, arazoa.
3. Beira.
4. eragin esangura duen partikula.
5. Garesti.

EBAZPENAK

7	3	1	9	2	4	8	6
8	4	2	7	8	2	4	9
3	1	5	6	7	8	2	4
6	9	3	1	5	4	2	7
2	6	7	8	3	9	5	1
5	4	8	1	6	7	9	2
4	7	9	3	8	1	6	5
8	5	3	7	2	6	4	9
1	2	6	9	5	4	3	7

5X5

1. PALAK
2. AFERA
3. LEIAR
4. ARAZI
5. KARIO

V	A	I	V	I	U	T	R	V	N	S	U	V	H
R	O	R	O	S	E	T	V	O	I	D	I		
R													
O	K	Z	T	M	L	I	B	I					
T	I	T	I						H		B	V	
V	A	T	V	F					V	Z	V		
I	Z	V	D										
U	T	V	D	U	T	V	K	E	T	V	T	V	T
V	I	R	V	L	O	V	K	Z	V	L	V		
L	V	V	Z	V	I	D	I						
V	O	V	A	B	B								

Concha Castells

EZ DIEZAGUTELA
HERIOTZA LAPURTU



GUTXI ZABALDUTAKO LEGE ERDI EZEZAGUNA

“Eutanasiaren gaiaz ez da kalean hitz egiten, gobernuari ez zaiolako interesatzen legeari zabalkundea ematea. Etxeko intimitatean gorde nahi dute, nonbait. Ez da prentsaurrekorik egin legea onartu dela esateko. Hemengo Osasun sailburuari esan diogu, eta Eusko Legebiltzarrean ere esan dugu, eskubideak pertsona guztiak ezagutu behar dituztela. Bestela, ezagutzen dutenek baino ezin dituzte gauzatu. Ezagutarazi egin behar da. Sailburuarekin egin genuen bilera batean, iruditu zitzaigun ez zutela halakorik egin nahi. Gizartean sentsibilitate mota asko dagoelako, edo dena delakoagatik”.

“Eutanasia Legeak frogatzeko eskatzen duen sufrimendua handiegia da”

Ogibidez mediku epidemiologoa da Concha Castells Carrillo (Bilbo, 1960), eta Osasun publikoaren kudeaketan ere jardun du zenbait urtez, zuzendaritza karguetan. Orain dela bost urtetik hona, Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkartearen presidentea da Euskal Autonomia Erkidegoan. Behar bezala hiltzeaz eta aurten indarrean jarri den Espainiako Eutanasia Legeaz hitz egiteko aitzakiarekin hurbildu gatzaizkio.

UNAI BREA HODEI TORRES

Duintasunez hiltzen gara, oro har?

Ez. Gaizki hiltzen gara, oraindik ere. Lan handia dago egiteko sentsibilizazioan eta osasungintzako profesionalen trebakuntzan, oraindik ezjakintasuna eta beldur handiak daude eta.

Zer da duin hiltzea?

Gure elkarteko kideen ustez, norberak nahi duen eran, nahi duenean eta nahi duenaren alboan hiltzea. Norberak erabakitako unean, hurkoak inguruan daudela, bakean, eta, ahal bada, lo lasaian. Guretzat borondatea da garrantzitsuena. Ez dago heriotza duinik ezin badu norberak erabaki, beste batzuek erabakitzen badute unea iritsi dela.

Ontzat eman behar dugu testuingurua, betiere, hilgarria den edo sufrimendu izugarria dakarren gaitz sendaezina dela?

Ez du zertan. Guk uste dugu hiltzeko borondatea edozein egoeratan errespetatu beharko litzatekeela. Badago adibiderik. Esaterako, beren

bitzita beteta dutela pentsatzen duten adineko pertsonak, osasun arazo larririk gabekoak, eta bizitzen jarraitu nahi ez dutenak. Borondatea da gakoa, eta horren barruan, jakina, borondatezko suizidioa ere sartzen da. Ez gaixotasun mental batek edo etsipen egoera batek eragindako suizidioa, ondo hausnartua baizik. Munduko herrialde bakar batek ere ez du hori onartzen, ordea.

Zergatik diozu ez garelako duintasunez hiltzen?

Jendea, gehienetan, ZIUan hiltzen delako, hiltzen ari dela konturatu gabe eta bere bizitzaren amaieraz erabakiak hartzeko aukerarik gabe. Erabakiok talde medikoak edo familiak hartzen dituzte; maiz, isiltasunpaktua eginda.

Gaixoari bere benetako egoera ezkutatzeko?

Bai. Hari informazioarik ez ematea adosten dute, informatzeak mesede baino kalte handiagoa egingo duela. Oso ohikoa da oraindik.



“Zenbait lekutan ohartarazi digutenez, baliteke mediku batzuk eutanasiaren aurrean objektore izatea, baina ez ideologiagatik, eskariak kudeatzeko bitarteko faltagatik baizik”, dio Castellsek.

Eta ez du legeren batek arautzen hori?

[Espainiako Estatuan] legez kanpokoa da, izan ere. 2000tik, Pazientearen Autonomia Legeak ezarrita du pazienteak informazioa jasotzeko eskubidea duela, eta talde medikoak eman egin behar diola informazio hori. Hari, ez familiari.

Martxoan onartu zen Espainiako Eutanasia Legea, eta ekainetik dago indarrean. Hartaz hitz egingo dugu, baina, lehenik, argitu dezagun eutanasia zer den eta zer ez den.

“Heriotza ona” esan nahi duen hitz grekoa da “Eutanasia”. Hortik landa, bai gizarteak bai lege honek onartzen duten definizioa hau da: pertsona batek, berarentzat jasanezina den sufrimendu egoera dela-eta, behin baino gehiagotan eskatutako heriotza, beste norbaitek gauzatu dezan. Hau da, hiltzeko laguntza eskatzen da. Definizio horretatik kanpo geratzen da elizak eta beste sektore erreakzionario batzuek kritikatzeko dutena: orain zahar guztiei eutanasia egingo zaiela. Hori ezin da gertatu, hiltzeko borondate

irimo eta argia adierazi beharra baitago.

Heriotza “behin eta berriz” eskatzea zenbat aldiz eskatzea da, zehazki?

Lege honi dagokionez, birritan.

Asetzen zaituzte legeak?

Ez. Frogatzeko eskatzen duen sufrimendua handiegia da, eta kanpoan uzten ditu gaixotasun mental kroniko larriak, ezarrita baitago bizitzaren azkentzea azkar eragiten duen edo desgaitasun fisikoa dakarren gaitz batek egon behar duela beti tartean. Tetraplegia bat, esate baterako. Gaitz mentalak kanpoan uztea hutsegitea dela uste dugu, hala-koen eraginez sufrimendu izugarria duten pertsonak baitaude, tratamendurik gabeko gaixotasun oso larriak jasaten ari direnak.

Jarraitu kritikatzeko, otoi.

Legeak duen alderdirik txarrena da ardura duen medikuak eta beste mediku batek eutanasia eskari bati baiezkota eman ostean ere, berme eta ebaluazio batzorde batek onartu behar due-

la kasu bakoitza. Eutanasia legezkoa den munduko beste herrialdeetan ez dago halakorik. Eta noski, erabakiak batzorde horietan dauden pertsonen araberakoak izango dira. Autonomia erkidegoetako gobernuei dagokie batzordeak izendatzea; pentsa, legea ekainetik dago indarrean, eta Andaluziak [PP dago agintean] oraindik ez du batzordea izendatu.

Zuk EAEkoa ezagutzen duzu ondoen. Haren osaketaz zerbait esaterik?

Bitxia da EAEko batzordean dauden profesional guztiak sorospen-etikako batzorderen bateko kideak direla. Harritzen gaitu hiltzeari buruzko erabaki batek eztabaida etiko baten menpe egon behar duela pentsatzeak. Nik hil nahi badut, hil egin nahi dut; niri dagokit erabakitzea, eta zuk ez duzu zertan hori ezbaian jarri, ez ikuspuntu etikotik ez inogotik. Aztertu ezazu nire kasua legean aurreikusita-koarekin bat datorren, eta kito.

Hala ere, legea aurrerapausoa da?

Bai, eta handia. Hutsuneak hutsune, sufrimendu asko eragotziko du. ●



Irakasleak kezkatuak, umeek patioan erreproduzitzen dituztelako ETB-ko saioen eszenak



Hiru ume handi eskola txiki bateko patioan, hamaiketakoa irabazteko borrokan.

Ikastetxe publikoek eta gizarte ekimeneko itunpeko herrikoiek agiri bateratua plazaratu dute, umeen artean arrakasta handia izan duen fenomenoaz ohartarazteko. Geroz eta gehiago dira patioan ETBko saioak erreproduzitzera jolasten duten ikasleak, "indarkeria esplizitu horrek dakartzan albo-kalte guztiakin", diote irakasleek. "Atrápame si puedes, Esto no es normal, Baserría, El Conquistador del quinto pino... Umeek eszenak zorrotzasun handiarekin ko-

piatzen dituzte, fikzioa eta errealtatea nahastu eta sufrimendua naturalizatuz. *Piztu telebista* saioa imitatzen duten ume teatroak dira okerrenak, klasean azken lerroan esertzen diren txoriburu horiek, euren gelakideek egiten dituztenak txantxa artean komentatzen dituztenak. Bueno, eta euskara irakasleak etengabe zuzentzen dituzten Usabiaga eta Euzkitze'tar Xabier bien imitatzailerak. Txipiroiaren jokoa? Nahiko genuke hura kopiatzea!"

Ostrukak ez zuen egurra ikusi eta...



SAREAN ARRANTZATUA

Bat, bi, hiru, lau... sardina bakalau!



Bilatu zazpi berdintasunak



ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Burujabe garez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albistek.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea

25€

+ 4€
bidalketa
gastuak

txikitik
eragiten!

